EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Euskal aditza bizkaiera eta batua

Jose Maria Irazola

2
Euskara Zerbitzua
Hizkuntz Prestakuntza

IRAZOLA, Jose Mari
Euskal aditza : bizkaiera eta batua / Jose Mari Irazola — 1. argit., 2. berrinp. — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2000
or. ; cm. — (Hizkuntz Prestakuntza ; 2)
ISBN 84-7542-398-1
1. Euskara - Aditza 2. Euskara - Euskalkiak - Bizkaiera. I. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. II. Izenburua. III. Bilduma
809.169-552
809.169-087(460.16)-552

Lehengo argitaraldia: 1987ko iraila
Lehengo berrinprimaketa: 1989ko azaroa
Bigarren berrinprimaketa: 2000ko maiatza

Ale-kopurua: 1.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.euskadi.net

Inprimaketa: Grafo, S.A.
Avda. Cervantes, 51 - 48970 Basauri

ISBN: 84-7542-398-1
Lege-gordailua: BI - 1.391-00

EUSKAL ADITZA BIZKAIERA ETA BATUA

JOSE MARI IRAZOLA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2000

NUN ZER: BILABIDEA

Orr.

SARRERA 13

ADITZ SOILAK: EGITE ERA

NOR orain aldian eta iraganean 23
Ariketak 24

NOR-NORI orain aldian 25
NOR-NORI iraganean 26
Ariketak 27

NOR(zer)-NORK orain aldian 29
Ariketak 30

ZER-NORI-NORK orain aldian (eroan, ekarri, erabili, *ino) 31
Ariketak 35

NOR-NORI iraganean (etorri, joan, ibili, egon) 37
NORK-ZER iraganean (ekarri, eroan, euki, jakin, erabili, *ino) 38
NORK-NORI-ZER iraganean (*ino) 39
Ariketak 40

ADITZ LAGUNTZAILEA: EGITE ERA

NOR orain aldian 45
NOR-NORI orain aldian 45
Ariketak 46

NOR-NORK orain aldian 47
Ariketak 48

ZER-NORI-NORK orain aldian 49
Ariketak 50

NOR iraganean 51
NOR-NORI iraganean 51
Ariketak 52

NORK-ZER iraganean 53
NOR-NORK iraganean 53
Ariketak 54

NORK-NORI-ZER iraganean 55
Ariketak 56

EGITE ERAREN BERRIKUSKETA-ARIKETAK 56

ADITZ SOILA: BALDIN ERA ETA ONDORIOZKOA

NOR (egon, etorri, ibili, joan) baldin era 63
NOR (egon, etorri, ibili, joan) ondoriozkoa 64
Ariketak 65

NORK-ZER (ekarri, jakin, euki, eroan, erabili) baldin era 66

ADITZ LAGUNTZAILEA: BALDIN ERA ETA ONDORIOZKOA

NOR baldin era 69
NOR-NORI baldin era 69

NOR ondoriozkoa (uste era) 70
NOR-NORI ondoriozkoa (uste era) 70
Ariketak 71

NORK-ZER baldin era 73
NORK-ZER ondoriozkoa 73
Ariketak 74

NOR-NORK baldin era 75
NOR-NORK ondoriozkoa 75
Ariketak 76

ZER-NORI-NORK baldin era 77
ZER-NORI-NORK ondoriozkoa 78
Ariketak 79

ADITZ LAGUNTZAILEA: SUBJUNTIBOZKO ERA

Sarrera 85

NOR orain aldian 86
NOR-NORI orain aldian 86
Ariketak 87

NOR(zer)-NORK orain aldian 88
Ariketak 89

ZER-NORI-NORK orain aldian 90
Ariketak 91

NOR iraganean 92
NOR-NORI iraganean 92
Ariketak 93

NORK-ZER iraganean 94
Ariketak 95

SUBJUNTIBOZKO ERAREN BERRIKUSKETA-ARIKETAK 96

ADITZ LAGUNTZAILEA: AHAL ERA

Sarrera 101

NOR orain aldian 102
Ariketak 103

ZER-NORK orain aldian 104
Ariketak 105

NOR hipotetikoa 106
Ariketak 107

NOR-NORI hipotetikoa 108
Ariketak 109

NORK-ZER hipotetikoa 110
Ariketak 111

NORK-NORI-ZER hipotetikoa 112
Ariketak 114

AGINTE ERA: ADITZ SOILA

NOR (etorri, ibili, joan, egon) 119
Ariketak 120

NOR-NORI (etorri) 121
NOR-NORI (ibili) 122
NOR-NORI (joan) 123
NOR-NORI (egon) 124

ZER-NORK (ekarri, jakin) 125
ZER-NORI-NORK (ekarri) 126
Ariketak 127

AGINTE ERA: ADITZ LAGUNTZAILEA

NOR 131
NOR-NORI 131
NOR-NORK 132
ZER-NORI-NORK 133
Ariketak 134

ADITZ DEFEKTIBO ETA IRREGULARRAK

ERITXI/ERITZI (orain aldian eta iraganean) 139
*ERION/*JARION (orain aldian eta iraganean) 140
IRUDI (orain aldian eta iraganean) 141
IRAUN (orain aldian eta iraganean) 142
JARDUN/IHARDUN (orain aldian eta iraganean) 143
ERAGON (orain aldian eta iraganean) 144
EUTSI 145
ATXEKI/ATXIKI (orain aldian) 146
*ERAUTSI/*IRAUTSI (orain aldian eta iraganean) 147
Ariketak 149

ERASKINA

EGITE ERA: ADITZ SOILAK

NOR-NORI (egon, etorri, ibili, joan) orain aldian 155
NOR-NORK (euki, erabili, ekarri, eroan) orain aldian 156
NOR-NORI (etorri, ibili, ego, joan) iraganean 157
NOR-NORK (eroan, ekarri, euki) iraganean 158
NORK-NORI-ZER (erabili) iraganean 159
NORK-NORI-ZER (ekarri) iraganean 160
NORK-NORI-ZER (eroan/eraman) iraganean 161

BALDIN ERA ETA ONDORIOZKOAK: ADITZ SOILAK

NOR-NORI (egon) 165
NOR-NORI (etorri) 166
NOR-NORI (ibili) 167
NOR-NORI (etorri, egon, ibili) 168
NORK-ZER (ekarri, eroan) 169

SUBJUNTIBOZKO ERA: LAGUNTZAILEA

NOR-NORI orain aldian 173
NOR-NORI iraganean 174
NOR-NORK iraganean 175
NORK-NORI-ZER iraganean 176

AHAL ERA: LAGUNTZAILEA

NOR-NORI orain aldian 179
NOR-NORK orain aldian 180

ZER-NORI-NORK orain aldian 181
NOR-NORK hipotetikoa edo gero aldian 182

SUBJUNTIBOZKO BALDIN ERAK: LAGUNTZAILEA

NOR eta NOR-NORI orain aldian 185
NOR-NORK orain aldian 186
ZER-NORI-NORK orain aldian 187
NOR eta NOR-NORI gero aldian 188
NORK-ZER eta NOR-NORK gero aldian 189
NORK-NORI-ZER gero aldian 190

AURRE HITZA: PRESTATZAILEAREN AZALPENA

"EUSKAL ADITZA, BIZKAIERA ETA BATUA". "Beste liburu bat oraindik?", esango du, behar bada, norbaitek liburu hau eskuratzean. Baina... begira!

Euskal ikaslegoari begiratuz jokera bikoitza dakusagu. Alde batetik zenbait ikasle euskaldun euskaldunak, euskaldun zaharrak, baina alfabetatugabeak. Bakoitza bere euskalkian mintzatzen da. Beste aldetik, hortxe dabiltza hainbat tokitan gogotsu diharduten euskalzaleak, euskaldun berriak. Gehientsuek batuaren bidetik abiatu ondoren, batuaz jarraitu nahi lukete beren alfabetatze bidean. Baina, hementxe bizi direnez gero euskalkiz mintzatzen diren berbalagunak dituzte eguneroko harremanetan.

Hortaz, euskal irakaslearen zeregina ere bikoitza dugula ezin ukatu; hau da, bizkaieradunak batuaz alfabetatu beharra, eta batuaz edo beste euskalkiz eskolatuak bizkaieraren ezagupenera bihurtzea.

Arazo hau, batez ere, ADITZAREN eremuan beste inun baino gordinago gertatzen denez gero, beharrezko zaie "bizkaieratarrei" ADITZ BATUA ikastea —bizkaieraz alfabetatzen diren bitartean— eta, batuaz edo beste euskalkiz alfabetatuei BIZKAIERAREN ezagupenera hurbiltzea, batua sakontzen duten bitartean. Gehiago oraindik, Bizkaiko literatura guztiaz jabetzeko, KRESALA irakurteko, adibidez, beharrezkoa da bizkaierazko aditza ezagutzea. Ba, nork esango luke, gaur egun, euskal literaturaren zati handi bat ikusi gabe norbait alfabetatua dela?

Esku artean daukazun liburu hau, EUSKAL ADITZA, BIZKAIERA ETA BATUA, horretarakoxe egina da, zuzen zuzenean. Hainbat urtetan Bilboko HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALEAN erabili ondoren —bizkaieraz eta batuaz alfabetatzeko nahaste eta batera dabiltzan ikas-taldeetan-, baliagarritzat jotzen da, emaitza onuragarriak ekarri bait ditu.

Zati nagusi bi ditu liburuak. Lehen zatian adizkerarik bizienak —bai ahoz eta bai gaurko literatura idatzian— eta beraien erabilpideaz jabetzeko bidezko lirateken oharrak eta ariketak sartzen dira. Ariketa mota ugari jarri da. Ikasleari bide erakusle eta irakasleari lagungarri dakizkion jarri ditut horren ugari. Izan ere, falta direnak asmatzea baino gehiegizkoak albora uztea errezago bait da. Horregatik jarri dira euskerabidean erdal esaldiak ere, gure ikasleak erdal mundutik datozkigulako. Bigarren zatia: ERASKINA. Azken atal honetan sartu ditugu gaur egun erdi bazterturik dauzkagun adizkerak. "Erdi bazterturik" dinotsut bai, eta horrelaxe da izan ere, ba aditz forma hauek gaurko euskaldunen ahotan entzungo ez dituzunarren, idazle zaharrengan txairo txairo bizi ziran eta.

Onuragarri bekizu zuri, ikasle gogotsu horri, baita zuri irakasle trebe zaitudan horri ere. Guztion ahaleginak, zureak eta nireak, jo-muga bakarrera zuzen ditzagun: Euskalerri euskaldun bat lortuaz gurean "GEU" izatera.

SARRERA

I. ADITZA ZER DEN

Esaldi barruan zerbaiten edo norbaiten IZAERA, EGOERA edo IHARDUNA adierazten duen atala ADITZA dela dinogu.

Aditzak adierazketa hau era bitara egin ohi du:

– Soilki: Nabilkio, Daramatza, Dira...

– Laguntzailez baliaturik, perifrasis bat bide dela: Etorriko da, emango dizut, erran derautak...

Beraz, Aditz mota bikoitza dugu:

– ADITZ SOILAK: laguntzailerik bage beren esanahia ederki adierazten dutenak. Horregaitik SOILAK, soil-soilik aditz eginkizuna burutu ohi daroelako.

– ADITZ KONPOSATUAK: laguntzailez osoturik adierazten dute beren esanahia. Hau da partizipio eta aditz laguntzailea alkartzen dira aditz eginkizuna burututzeko.

Horrez gainera, beste aditz mota bi bereiztu behar ditugu: aditz iragangaitzak (pasakaitzak, intransitiboak) eta aditz iragankorrak (pasatzaileak, transitiboak).

– IRAGANGAITZAK: aditzaren iharduna, sujetuarengan beragan gelditzen denean, besterengana pasatu edo igaro bage. Adibidez, Nabil, Datorkit, Dira...

– IRAGANKORRAK: aditzaren iharduna egilearengandik konplementu edo osogarri deitu ohi den beste zerbait edo norbaitengana pasatu edo igaro egiten denean. Adibidez, DAROAT, DARAMAZKIZUT,...

Gero, ikasturtean zehar, ikusiko da aditz osoaren zatiketa eta erabilpidea, hemen jarri dugun banaketa honen arabera eta, gero azalduko ditugun, ERA, ALDI, eta ASPEKTUAREN arabera.

II. ADITZ ERROA

Aditz erroa edo aditz lexema aditzaren esanahia soil-soilik adierazten duena da. Radikala deitu ohi den zer horren antzeko. Adibidez, iBILi, eTORri, SARtu, HARtu, eta abar.

Bestalde, jakina "TU" edo "DU" atzizkiez baliatuz edozein izen, izenlagun, edo aditzlagun ere aditz bihurtu daiteke. Adibidez, bigun/bigunDU, etxera/etxeraTU, etab.

III. ADITZ IZENA

Aditz erroak eta atzizki batek osotzen dute:

– Gehienetan "TZE" atzizkia: Gal/galtTZE, har/harTZE, etab.

– Aditz erroa S, Z, N-z amaitzen denean: "TE" hartzen dute Adibidez, ikus/ikusTE, eta abar.

– Ibil/ibilTE(TZE), hil/hilTE(TZE).

IV. PARTIZIPIOA

Aditz erroa oinarri dugularik, atzizki baten bitartez osotzen den izen lagun bat besterik ez dugu PARTIZIPIOA.

PARTIZIPIO mota hauek ditugu, batez:

– Lehen aldikoa: iraganeko aditzak osotzeko.

– Ohiturazkoa (aditz lagunduetan orain aldikoa): orain aldirako.

— Gero aldikoa: gero aldiak osotzeko.

Ikusi banan banan partizipio hauek:

IV.1. **Lehen aldiko partizipioa**

— Erroari "TU" ezarriaz sortzen da: HAR/harTU; HANDI/handiTU; SAR/sarTU, etab.

— Aditz erroa N edo L-z amaitzen denean "DU" atzizkia ezarri behar da: GAL/galDU; LAGUN/lagunDU, etab.

— Beste aditz batzuetan I ezarri behar izaten da: IBIL/ibill; ETOR/etorrl; IKUS/ikusl; etab.

— Beste aditz mordo batek erroa eta lehen partizipioa berdinak ditue:

— Erroa N-z amaitzen duten batzuk: JAN, EGON, EROAN/ERAMAN; etab.

— Erroa bokalez amaitzen duten batzuk ere bai: BETE, BOTA, etab.

— HIL aditzak ere erroa eta lehen partizipioa berdinak ditu: HIL.

IV.2. **Ohiturazkoa**

Erroari -TEN edo -TZEN atzizkia ezarririk sortzen da partizipio hau. Lehen partizipioa -TU edo -DU atzizkiz amaitzen denean, -TZEN ezarriko da ohiturazkoa egiteko. Adibidez, osoTU/osoTZEN; bigunDU/bigunTZEN, etab.

Baina -TU edo -DU horien aurretik Z edo S bat egon izan balitz, -TEN jarri behar izango litzateke. Adibidez, ezereZtu/ezereZTUTEN; siniStu/sinisTEN; etab.

Azkenez, lehen aldikoa sortzeko I ezarri behar izaten den adizkera horietan -TZEN jarriko da ohiturazkoa egiteko. Honela, ibill/ibilTZEN, etorrl/etorTZEN(ten); erorl/erorTZEN; etab.

IV.3. **Gero aldikoa**

Gero aldia adierazteko darabilgun partizipio hau, lehen aldikoaren genitiboa besterik ez da. Beraz, genitibozko atzizkiak ezarririk sortu ohi da. Honela:

IV.3.1. Lehen partizipioa N-z amaitzen duten aditzek gero aldirako -"GO" atzizkia hartzen dute bizkaieraz eta gipuzkeraz, baina, lapurteraz eta xuberoeraz, ordea, -"EN" hartzea nahiago dute. Adibidez:

— EGIN: B. eta G. EINGO, baina iparraldekoetan, EGINEN.

— IZAN: B. eta G. IZANGO, iparraldekoetan, IZANEN.

Kontuan hartzeko da Naporroako adizkera batzuetan, hala Mendiburugan eta gaur bertan Baztan aldean, agertzen den -"AIN", atzizkia GERO ALDIA osotzeko. Adibidez, Eman/EmaIN, erran/erraIN, etab. Hemen adierazten den -"AIN" ez da lehen esaniko -"EN" besterik.

IV.3.2. Beste aditz guztiek -"KO" atzizkia ezarririk osotzen dute beren gero aldiko partizipioa. Adibidez, ekarri/ekarriKO; hartu/hartuKO; bota/botaKO; etab.

Hiru partizipiooz gainera ba da beste bat ere: intenporala deitu ohi dena. Gehienetan aditz erroak eta laguntzaileak osotzen dute. Baina kontuan hartu ondorengo zertzelada hauek.

IV.3.3. Lehen aldikoa TU edo DU atzizkiz amaitzen denean aditz erroa soi-soilik partizipio bezala hartzen da. Honela, lagunDU/LAGUN; sarTU/SAR; kenDU/KEN, etab. Adibidez, "Sar zaitez" "Ken hakit hortik... "Lagun iezaiozu Kepari bildur da eta". Eta abar.

IV.3.4. Lehen aldiko partizipioa I batez amaitu izan balitz, kontuan hartu behar da "I" horren aurretik zein kontsonante zetorren: S, Z, TS, TZ, R, RR, L, N, izan baldin balitz "I" hori kendu eginbehar da eta horrela intenporala delako hori osotu. Adibidez, Hasi/HAS; ipini/IPIN; Jarri/JAR, etab.

Beste kasu guztietan, aditz erroak soilean laguntzailearekin alkarturik adierazten da intenporal kutsu hori.

Intenporal hau aditzaren iharduna bete den, betetzen ari den, edo, beteko den ziurtasunik ez daukagunean erabili behar da. Hau da, "Etor zedin dei egin zion", "Sar zaitez", "Bil gintezke", intenporalean jartzen dira, aditzaren iharduna beteko den ziurtasunik ez bait dago. Horrela, norbaitek etortzeko dei egin zion beste norbaiti, baina dei egiteak ez du esan nahi, deitua etorri zenik, sarritan gertatzen bait da, deitu norbait eta hau etorri ez egitea.

Beraz, intenporal hau erabili behar dugu ondorengo era hauetan:

– Aginte eran.
– Ahal eran.
– Subjuntiboan.
– Subjuntibozko baldintzetan.

Azkenez, zera esan beharrekoa litzateke: bizkaieraz intenporal kontu hau ez dela agertzen.

V. ADITZ LAGUNTZAILEAK

Lehen esan daroagu aditz batzuk soilki konpontzen direla beren esanahia adierazteko; beste batzuk, ordea, laguntzaile baten premian aurkitzen direla. Gaur gehienak laguntzailez baliatzen dira. Lehenago, Añibarroren GRAMATIKA lekuko, asko ugariagoak ziren aditz soilak.

Gaur, aditz laguntzailerik behinenak hauek dituzu:

– IZAN eta *EDIN: iragangaitzetarako.

– UKAN eta EGIN/*EZAN iragankorretarako.

V.1. Izan

Aditz soila izanez gainera, laguntzaile zereginetarako darabilgu, nahiz eta bere formarik gehienak galdu dituen arren (1), Azkuek dinoen bezala.

Batez ere, era hauetan darabilgu:

– EGITE ERAN: indikatibozko aditz formak osotzeko.

– BALDIN ERAN: baina ez subjuntibozko baldintzetan.

– ONDORIOZKOAN (uste eran): orain eta lehen aldian.

Euskalki guztietan darabilgu IZAN aditza.

V.2. *Edin

Aditz laguntzaile iragangaitz bezala bakarrik agertzen da, ta adizkera hauetan darabilgu:

– SUBJUNTIBOZKO ERAN
– AHAL ERAN
– AGINTE ERAN
– SUBJUNTIBOZKO BALDINTZETAN.

Aditz honen erroa -DI- edo -I- besterik ez dogu ezagutzen, gaur egun.

V.3. **Ukan (edun)**

Laguntzaile iragankorra. Euskalki guztietan darabilgu IZAN iragangaitzaren pareko delarik.

V.4. **Egin**

Bizkaieraz bakarik darabilgun laguntzaile iragankorra. *EDIN iragangaitzaren pareko adizkeretan darabilgu. Hau da,

- Subjuntibozko eran.
- Ahal eran.
- Aginte eran, eta
- Subjuntibozko baldintzetan.

V.5. ***Ezan**

Aditz laguntzaile pasatzailea. Bizkaieraz ez, beste euskalkietan bizi da. Bere eremua, bizkaierazko EGIN aditzarena berbera da.

Gero, aspektuari buruz, zerbait esango den bezala, kontuan hartzeko da, gaur egun egin izan den aditz laguntzaile hauen erabilketaren bereizketa zehatza. Gaur ERA batzuetarako batzuk eta besteetarako beste batzuk —esan dugunaren arabera— gelditu badira ere, lehenago ez zen horrela: aspektuaren indarra gaur baino jatorrago bizi zelarik, bururatuetan EGIN/*EZAN, eta *EDIN erabiltzen ziren. Eta aspektu bururagabeetan, ordea, besteok: IZAN/UKAN.

VI. **ADITZ ERAK**

Erdaraz "modos verbales" derizkiegun "aditz erak", aditzaren jarduna nola biribiltzen den adierazten dute. Begira zeintzuk diren eta bakoitzaren ezaugarri berezia:

- EGITE ERA: egitea, izatea, edo egiazko iharduna adierazteko erabili ohi da.
- AGINTE ERA: aginduak emateko erabili ohi dena.
- SUBJUNTIBOZKO ERA: gurari, helburua, edo beste zenbait esaldi menperatu eratzeko erabili ohi da. Bere ezaugarria -N atzizkia.
- AHAL ERA: Ahalmena, edo ezina adierazteko erabili ohi da. Ahal ezaugarriak hauek dira: "TE" iragangaitzetarako —gaur egun guztiz indargetua— eta "KE" iragankorretarako.
- BALDIN ERA: Baldintza edo kondizioa adierazteko erabili ohi da. Baina baldintza adierazketa era bitara egin daiteke —hobeki esan: egiten ZEN, aspektuaren eragina gaur baino nabariago zen garaian— Indikatibozko baldintzaz edo baldin eraz alde batetik, eta, subjuntibozko baldintzaz bestetik.

Adibidez, BALDINTZA ERREALA: "Zu bazatoz ni ez noa".

BALDINTZA IRREALA: "Zu bazentoz ni ez ninoake".

SUBJUNTIBOZKO BALDINTZA HURBILA: "Zu etor bazaitez, ni ezin naiteke joan" (gaur: ez nintzateke joango).

— ONDORIOZKOA (uste era): baldintzaren ondorioa izanaz, uste edo eritxi bat adierazten du. Bere ezaugarria "TE" iragangaitzetan —gaur indargetua eta galdua— eta "KE" iragankorretan —eta iragangaitzetan ere bai gaur—.

Ondoriozko erari buruz, gainera, komeni da zera kontuan hartzea:

— Nintzateke, Nuke, Luke, eta abarrek beti gero kutsu bat daukatela.

– Amaieraz –N bat gehiturik (eta hirugarren pertsonetan bizkaieraz NOR edo NORK Ø eta batuaz Z– jarriaz) iragana sortzen dela kontuan hartu. Adibidez, ikusi aditzok:

– Etorriko NINTZATEKE = vendría.

– Egingo LUKE = él lo haría, eta abar.

Lehenaldiratuz:

– Etorriko NINTZATEKEEN = yo habría venido.

– Etorriko Ginatekeen = habríamos venido.

Baina kontuz, iragangaitzetako hirugarren pertsonetan:

– Etorriko LITZATEKE > ZATEKEEN

– Etorriko Litzatekez > ZITZATEKEEN.

Iragankorrak, ostera, ez dauka berezitasunik:

– Ekarriko LUKE > ZUKEEN

– Ekarriko LUKETE > ZUKETEN.

ADITZ SOILAK: EGITE ERA

EGITE ERA: ORAIN ALDIA.–*"NOR".*–EGON, ETORRI, IBILI, JOAN.

NOR	ERROA	pluralg.	
NA	GO		
HA	TOR		
DA	OA		
GA	BIL	Z	
ZA		Z	
ZA		Z	e
DA		Z	

NOR	*ERROA*	*pluralgilea*	
NA	*GO*		
HA	*TOR*		
DA	*OA*		
GA	*BIL*	*de Z*	
ZA		*de Z*	
ZA		*de Z*	*tE*
DA	*(1)*	*de Z*	

(1) "de" pluralgile bezala "EGON" aditzarekin bakarrik.

Nago	Nator	Noa	Nabil	*Nago*	*Nator*	*Noa*	*Nabil*
Hago	Hator	H(a)oa	Habil	*Hago*	*Hator*	*Hoa*	*Habil*
Dago	Dator	D(a)oa	Dabil	*Dago*	*Dator*	*Doa*	*Dabil*
Gagoz	Gato(r)z	G(a)oaz	Gabilz	*Gaude*	*Gato(r)z*	*Goaz*	*Gabiltza*
Zagoz	Zato(r)z	Z(a)oaz	Zabilz	*Zaude*	*Zato(r)z*	*Zoaz*	*Zabiltza*
Zagoze	Zato(r)ze	Z(a)oaze	Zabilze	*Zaudete*	*Zato(r)zte*	*Zoazte*	*Zabiltzate*
Dagoz	Dato(r)z	D(a)oaz	Dabilz	*Daude*	*Dato(r)z*	*Doaz*	*Dabiltza*

EGITE ERA: IRAGANA.–*"NOR".*–EGON, ETORRI, IBILI, JOAN.

NOR	ERROA	pl.	L.e.
Nen	TOR		N
Hen	BIL		N
-e	GO		N
Gen	(1)	Z	N
Zen		Z	a N
Zen		Z e	N
-e		Z	N

NOR	*ERROA*	*pl.*	*Len ezaug.*
Nen	*TOR*		*eN*
Hen	*BIL*		*eN*
Ze	*GO*		*eN*
Gen(2)	*OA*	*Z (tZa)*	*eN*
Zen		*Z (tZa)*	*eN*
Zen		*Z (tZa) -tE*	*eN*
Ze		*Z (tZa)*	*eN*

(1) Bizkaieraz ez dogu sartu JOAN aditza, irregularki jokatzen delako.
(2) JOAN aditzak ez du egiten "Gen, Zen, Nen, etab", "Nind, Hind, etab. baizik.

Nentorren	Nenbilen	Nengoan	*Nentorren*	*Nenbilen*	*Nengoen*	*Nindoan*
Hentorren	Henbilen	Hengoan	*Hentorren*	*Henbilen*	*Hengoen*	*Hindoan*
Etorren	Ebilen	Egoan	*Zetorren*	*Zebilen*	*Zegoen*	*Zihoan*
Gentozan	Genbiltzan	Gengozan	*Gentozen*	*Genbiltzan*	*Geunden*	*Gindoazen*
Zentozan	Zenbiltzan	Zengozan	*Zentozen*	*Zenbiltzan*	*Zeunden*	*Zindoazen*
Zentozen	Zenbiltzen	Zengozen	*Zentozten*	*Zenbiltzaten*	*Zeundeten*	*Zindoazten*
Etozen	Ebiltzan	Egozan	*Zetozen*	*Zebiltzan*	*Zeuden*	*Zihoazen*

Bizkaieraz JOAN, lehenaldian.—Ninoian, hinoian, joian, ginoiazan, zinoiazan, zinoiazen, joiazan.

Palatalizazioa gora-bera, bizkaierazko eta batuazko JOAN aditzaren forma irregular honeik bardinak dira.

ARIKETAK

1. *Ondorengo esaldiotan azpimarratu aditz jokatu gabeak eta, ondoren, esan egizu, zein itauni erantzuten deutsan/dion bakoitzak: Zer?, Zertarako?...*

   — Osasuna galtzeraino lan egin eban/zuen.
   — Etxera etortzeko esan arren ez da etorri oraindik!
   — Orain korrika egiteari emon deutso/dio.
   — Zuk asko janagatik nik ez dot goserik kenduko!
   — Guzurrak esateari ekin barik, zagoz ixilik!
   — Hori ixiltzekotan ahoa tapau behardo deutsazo/diozu!
   — Nik ez dut nahi hori egiterik!
   — Etxera joatea gura dozu, ume?
   — Ez, nik ez dot gura etxera joaterik!
   — Ogia emon deuskue/digute jateko.
   — Ez da komeni geldi egoterik.
   — Lan egitetik nentorrela istripu bat ikusi dot.

2. *Ondorengo esaldiotan aditz soilaren ordez perifrastikoa jarri da. Zuzendu, beraz, eta jarri behar den aditz soila.*

   — Nik oraintxe jakiten dot zu gaiztoa zarana.
   — Lengo egunean, zuen Koldo nekatuta etortzen zan, nik ikusi nebanean/nuenean.
   — Bart etxera etorten nintzela zure ama ikusi neban/nuen.
   — Hau da beroa! Nik eukiten dot egarria!
   — Han, beheko jesarlekuan jesarrita oraintxe egoten dena, nor da?
   — Zuk gaur ere neure kotxea erabilten dozu, ba! Eta nire baimenik gabe!
   — Patxi, boligraforik eukiten dozu, mesedez, oraintxe behar dot eta?
   — Zuk ez dozu jakiten non zagozan/zauden ere: herri honek izena zelan/nola duen ezetz jakin!

3. *Ondorengo aditz bakoitzaz baliaturik esaldi bat egin.*

   — Nentorren_____
   — Zenbiltzan_____
   — Dagoz/daude_____
   — Nengoen_____
   — Egozan/zeuden_____
   — Dabiltza_____

4. *Erdal esaldiok euskeratu.*

   — Hoy no vienen tus amigos, porque es tarde.
   — ¿Quién anda ahí? A ver si estáis quietos!
   — Cuando vengo aquí no sé lo que me sucede, pero lo paso muy mal.
   — Yo iba todos los días a buscar la leche y el pan, pero tú no venías nunca.
   — ¿Por qué andáis siempre como el perro y el gato?

EGITE ERA: ORAIN ALDIA.–*"NOR-NORI".*–EGON, ETORRI, IBILI, JOAN.

NOR (ha/haiek)		NORI	
		T	
		K/Na	
Da	-GO	KO	
	-TOR	KU	
	-BIL	TZU	
	-OA	TZUE	
Da		KE	Z

NOR (ha/haiek)		NORI	
		KIT	
		KIK/KIN	
Da	*-GO*	*KIO*	
	-TOR	*KIGU*	
	-BIL	*KIZU*	
	-OA	*KIZUE*	
Da		*KIE*	*Z*

HA eta HAIEK

Jagot/aZ	*Dagokit/Zkit*
Jagok/Zak	*Dagokik/Zkik*
Jagona/Zana	*Dagokin/Zkin*
Jagoko/Z	*Dagokio/Zkio*
Jagoku/Z	*Dagokigu/Zkigu*
Jagotzu/Z	*Dagokizu/Zkizu*
Jagotzue/Z	*Dagokizue/Zkizue*
Jagoke/Z	*Dagokie/Zkie*

HA eta HAIEK

Jatort/aZ	*Datorkit/datozkit*
Jatork/Zak	*Datorkik/datozkik*
Jatona/Zana	*Datorkin/Datozkin*
Jatorko/Z	*Datorkio/Datozkio*
Jatorku/Z	*Datorkigu/Datozkigu*
Jatortzu/Z	*Datorkizu/Datozkizu*
Jatortzue/Z	*Datorkizue/Datozkizue*
Jatorke/Z	*Datorkie/Datozkie*

HA eta HAIEK

Jabilt/aZ	*Dabilkit/Zkit*
Jabilk/Zak	*Dabilkik/Zkik*
Jabilna/Zana	*Dabilkina/Zkina*
Jabilko/Z	*Dabilkio/Zkino*
Jabilku/Z	*Dabilkigu/Zkigu*
Jabiltzu/Z	*Dabilkizu/Zkizu*
Jabiltzue/Z	*Dabilkizue/Zkizue*
Jabilke/Z	*Dabilkie/Zkie*

HA eta HAIEK

Joat/aZ	*Doakit/Doazkit*
Joak/Joazak	*Doakik/Doazkik*
Joana/Joazana	*Doakin/Doazkin*
Joako/Z	*Doakio/Doazkio*
Joaku/Z	*Doakigu/Doazkigu*
Joatzu/Z	*Doakizue/Doazkizu*
Joatzue/Z	*Doakizue/Doazkizue*
Joake/Z	*Doakie/Doazkie*

Oharrak

NOR hirugarren pertsonakoa deneko adizkerak dira gehien erabilten direnak. Horregaitik banandu egin ditut NOR = hirugarrena eta NOR = beste pertsona bat den adizkerak. Beraz, hemen batera daukazuz NOR = HA eta NOR = HAIEK direneko EGON, ETORRI, IBILI eta JOAN aditz soilak.

Kontuan hartzeko da, bizkaieraz D-hasierakoa Dx- antzera ahozkatzen dogula. Horregaitik jarri da "J-" letraz, ahozki hori adierazteko. Baina danok dakigu "J-" hori izatez "D-" dela; hau da, hirugarren pertsonako NOR morfema.

Beste adizkerak, NOR lehenengo edo bigarren pertsonako den adizkerak gutxi erabilten diren ezkero, eraskinean sartu ditut. Ikus, eraskina, 155. orrialdea.

EGITE ERA: IRAGANA.–*"NOR-NORI".*–ETORRI, JOAN, IBILI, EGON.

NOR (ha/haiek)		NORI
		T - KIT
		Ka/Na - KIK/KINa
e	-TOR	KO - KIO
	-OA	KU - KIGU N
	-BIL	TZU - KIZU
	-GO	TZUE - KIZUE
e		KE - KIE Z

NOR (ha/haiek)		NORI
		KIT
Kik/Kin	*-TOR*	
Z e	*-OA*	*KIO*
	-BIL	*KIGU N*
	-GO	*KIZU*
		KIZUE
Z e		*Z KIE*

ETORRI

Etordan/Zan	*Zetorkidan/Zkidan*
Etorran/Zan	*Zetorkian/Zkian*
Etornan/Zan	*Zetorkinan/Zkinan*
Etorkon/Zan	*Zetorkion/Zkion*
Etorkun/Zan	*Zetorkigun/Zkigun*
Etortzun/Zan	*Zetorkizuen/Zkizun*
Etortzuen/Zan	*Zetorkizuen/Zkizuen*
Etorken/Zan	*Zetorkien/Zkien*

JOAN

Joatan/Zan	*Zihoakidan/Zkidan*
Joakan/Zan	*Zihoakian/Zkian*
Joanan/Zan	*Zihoakinan/Zkinan*
Joakon/Zan	*Zihoakion/Zkion*
Joakun/Zan	*Zihoakigun/Zkigun*
Joatzun/Zan	*Zihoakizun/Zkizun*
Joatzuen/Zan	*Zihoakizuen/Zkizuen*
Joaken/Zan	*Zihoakien/Zkien*

HA eta HAIEK

Ebiltan/Zan	*Zebilkidan/Zkidan*
Ebilkan/Zan	*Zebilkian/Zkian*
Ebilnan/Zan	*Zebilkinan/Zkinan*
Ebilkon/Zan	*Zebilkion/Zkion*
Ebilkun/Zan	*Zebilkigun/Zkigun*
Ebiltzun/Zan	*Zebilkizun/Zkizun*
Ebiltzuen/Zan	*Zebilkizuen/Zkizuen*
EbilkenZan	*Zebilkien/Zkien*

HA eta HAIEK

Egokidan/Zan	*Zegokidan/Zkidan*
Egokian/Zan	*Zegokian/Zkian*
Egokinan/Zan	*Zegokinan/Zkinan*
Egokion/Zan	*Zegokion/Zkion*
Egokigun/Zan	*Zegokizun/Zkizun*
Egokizu-n/Zan	*Zegokizun/Zkizun*
Egokizuen/Zan	*Zegokizuen/Zkizuen*
Egokien/Zan	*Zegokien/Zkien*

IBILI

EGON

Oharra

– Iraganeko formak gutxi erabilten dira. Batez ere iraganeko NOR-NORI formak. Horregaitik banatu ditut NOR = 3. denekoak eta besteak; bigarrenok eraskinean dituzu. Ikusi, beraz, ERASKINA 157. orrialdea.

– NORI morfema biokitzak jarri ditut bizkaieraz. Egia esan, lehenengokoak dira bizkaierazko forma jatorrak, baina besteak ere zabal dabiltza, eta korritzen dabe gure artean, idatziz behintzat. EGON aditzarekin, adibidez, nork idatzi edo irakurri du EGOTAN aditz forma ? Bai, ostera beste hau: EGOKIDAN, eta abar.

– NORI = HIRI denean -Ka- edo baita ere -A- soilik. Adibidez, EBILKAN, edo EBILAN; eta abar.

ARIKETAK

1. *Hutsunak bete ematen den aditza behar den moduan jokatuz.*

— Umeak gaur egun guztian geuri begira_____(egon).
— Pello Andoniri adarra joten_____egun guztian (ibili).
— Noiz_____Joan eta Kepa, zuri, bila? (etorri)
— Txomin! Hor nun_____-n zure emaztegaia. (etorri)
— Gaur_____guri lagunak Lekeitiotik. (etorri)
— Nora_____zuei semea soldadiska egitera? (joan)
— Zeri begira_____Txomin lengo egunean, han gure eskola ondoan? (egon)
— Zuri deika eta deika_____arren ni, ez zinen konturatu. (ibili)
— Joan den urtera arte beti_____seme-alabak gaboneterako, baina orain ez_____nahiz eta aita eta ama zahartuta egon. (etorri)

2. *Ondorengo esaldiok NOR-NORI egituran jarri behar dituzu.*

— Kepa beti berandu etorren gugana.
— Gero dator zuenera Ander.
— Oraintxe noa zuengana.
— Gure umetxoa gaixorik egoan, et egun guztian berari begira gengozan.
— Laster etorren gure ondora, norbaitek jo ezkero.
— Zuri begira nengoen egun osoan, eta zu ez zentozan nigana!
— Nor ebilen zuri adarra joten?
— Zeu zenbiltzan niri adarra joten, eta orain ere zeu zabiltz.
— Gela horretan Kepa dago gure zain.
— Norengana zoaz?
— Alkate Jaunarengana noa, gizon bat guri kalte egiten dabilelako.
— Gaur ez doa zuenera osagilea, geurera datorrelako.
— Atzo zuri itxaroten nengoan egun guztian.
— Nor dabil zuri asarreka?
— Gugana ez dator iñor!

3. *Aldiz aldatu ondorengo esaldiok.*

— Kepa datorku zinera joateko.
— Nori begira zagokioze, hor?
— Gero datorkez Nekane ta Idoiari eskolako lagunak.
— Udabarri ona datorrela basarritarrentzat, baina zera...!
— Lanak amaitutakoan natorkizu neu ere laguntzera.
— Noiz doazkizue seme-alabak Ameriketara?
— Lehen, egunero etorkuzan/zetozkigun Kepa ta Abilio. Orain, ostera, ez datoz urtean behin ere...
— Umeok egun santu guztian adarra joten ebilkiguzan/zebilzkigun.

4. *Esaldi bakoitzeko hutsuna bete, zeuk nahi duzun hitz bat jarriaz.*

— Zure aitak lanik ez.....
— Nondik datoz..... zure lagunak?
— Zertarako..... liburu hori?
— Nik ez dakit zergaitik beti..... zu horrela!
— Zergaitik..... zara, hori esan deutsudalako/dizudalako?
— Nik ez dot entzun horrelakorik..... zure.....
— Ez dakigu gizon hori..... den.

5. *Ondorengo erdal esaldiok euskeratu.*

— ¿Cuándo te vienen los amigos?
— Me estaban esperando desde las cinco.
— Tú me vienes siempre en el momento más inoportuno.
— Te estuvieron esperando hasta las cinco y media.
— Hoy me vienen los chicos del orfeón para el ensayo.
— ¿Cuándo te viene tu marido, querida?
— Las palomas me venían a la mano.
— Ahí te viene Pepe el Relojero.

6. *Ondorengo esaldiotako hutsunak bete, ematen den aditzaz baliaturik, baina aditza jokatugabe erabili behar da.*

— *Adibidez: Gertu egoan pelotan* jokatzeko (jokatu)
— Txarto egiten dozu hori horrela_____(jarri).
— Ez daukazu hemendik_____(urten).
— Esan euskun/zigun etxean ez_____(sartu).
— Zerk bultza zaitue hori_____(egin)?
— Damu dot zu naigabtu_____(izan).
— Era horretara_____erori/jausi zara? (bizi izan).

EGITE ERA: ORAIN ALDIA.–*"NOR(ZER)-NORK".*–EKARRI, EROAN (ERAMAN), ERABILI, JAKIN, *INO (ION, ESAN), EDUKI.

NOR (zer = 3)		NORK	
		T	
	-KAR	K/Na	
DA	-ROA	-	
	-RABIL	GU	
	-KI(1)	ZU	
	-INO(2)	ZUE	
DA	-UKa	E	Z(3)

NOR (zer = 3)		NORK
		T
	-KAR	K/N
DA	-RAMA	-
	-RABIL	GU
	-KI(1)	UE
	-*IO	ZUE
DA	*-DUKA TZA(1)*	*TE*

EKARRI

Dakart/daZ	*Dakart/tzat*
Dakark/Zak	*Dakark/tzak*
Dakarna/Zana	*Dakarna/tzana*
Dakar/Z	*Dakar/tza*
Dakargu/Z	*Dakargu/tzagu*
Dakarzu/Z	*Dakarzu/tzazu*
Dakarzue/Z	*Dakarzue/tzazue*
Dakarre/Z	*Dakarte/tzate*

EROAN

Daroat/daZ	*Daramat/tzat*
Daroak/Zak	*Daramak/tzak*
Daroana/Zana	*Daraman/tzan*
Daroa/Z	*Darama/tza*
Daroagu/Z	*Daramagu/tzagu*
Daroazu/Z	*Daramazu/tzazu*
Daroazue/Z	*Daramazue/tzazue*
Daroe/Z	*Daramate/tzate*

ERABILI

Darabilt/daZ	*Darabilt/tzat*
Darabilk/Zak	*Darabilk/tzak*
Darabilna/Zana	*Darabilna/tzan*
Darabil/Z	*Darabil/tza*
Darabilgu/Z	*Darabilgu/tzagu*
Darabilzu/Z	*Darabilzu/tzazu*
Darabilzue/Z	*Darabilzue/tzazue*
Darabile/Z	*Darabilte/tzate*

JAKIN

Dakit/daZ	*Dakit/zkit*
Dakik/Zak	*Dakik/zkik*
Dakin/Zan	*Dakin/zkin*
Daki/Z	*Daki/zki*
Dakigu/Z	*Dakigu/zkigu*
Dakizu/Z	*Dakizu/zkizu*
Dakizue/Z	*Dakizue/zkizue*
Dakie/Z	*Dakite/zkite*

***INO**

Dinot/daZ	*Diot(4)*
Dinok/Zak	*Diok*
Dinon/Zana	*Dion*
Dino/Z	*Dio*
Dinogu/Z	*Diogu*
Dinozu/Z	*Diozu*
Dinozue/Z	*Diozue*
Dinoe/Z	*Diote*

EUKI

Daukat/daZ	*Daukat/Zkat(5)*
Daukak/Zak	*Daukaka/Zkak*
Daukan/Zan	*Daukan/Zkan*
Dauka/Z	Dauka/Zka
Daukagu/Z	*Daukagu/Zkagu*
Daukazu/Z	*Daukazu/Zkazu*
Daukazue/Z	*Daukazue/Zkazue*
Dauke/Z	*Daukate/Zkate*

Oharrak

(1) Jakin aditzak ZER-NORK bakarrik hartzen dau: *zerbait* jakiten da beti; ez norbait. Gainera batuaz -ZKI- pluralgilea hartzen dau; ez -TZA-.

(2) Aditz hau forma jokatuetan bakarrik agertzen da.

(3) Hikako adizkeretan -Z pluralgilea NORK morfemaren aurretik doa. Adibidez, daukaZak, eta ez daukakaZ. DaroaZak, eta ez daroakaZ. Dana dala Eibar inguruetan entzun ohi da: "Atara einaZ hiru txikito", eta ez "eiZan".

(4) Adizkera honen ZER = plurala Bizkaian bakarrik gorde da. Horregatik Euskaltzaindiak hau dino: *"...zilegitzat uzten da hemen jarritakoei pluralez -Z gehitzea: diot/diodaZ; dio/dioZ..." (Euskal aditz batua, 176. orr.)*

(5) EUKI aditzarekin batuaz ere -Z- pluralgilea.

NOR = 1.2. pertsonako NOR-NORK adizkerak Cfr. ERASKINA, 156. orr.

ARIKETAK

1. *Hutsunak bete ematen den aditza egokituaz.*

   – Nondik_____horren lora politak zuk? (ekarri)
   – Nire arrebak mutil txiki eder bi_____(euki)
   – Guk beti egia_____, baina zuek ez dozue sinistuten. (esan)
   – Oraintxe dakit egia, zuok andereiñoak lotuta_____ eskola denporan; horren okerrak zarie! (eduki).
   – Aurten turistak diru gutxi_____(ekarri).
   – Diskotegi barri baten_____zure "bafleak" (erabili).
   – Gure besteko Patxik ere bart ederra_____Bilbotik etorrenean (ekarri).
   – Zer_____zuk, txotxolo horrek, halakuorrek! (esan).
   – Egia da: nik Keparen kotxea_____, baina zuk norena_____ba? (erabili).
   – Zuek ez_____oraindik Bilbon zer pasatu den? (jakin).

2. *Esaldi bat egin ondorengo aditz bakoitzaz baliaturik.*

   – DAUKAT_____
   – DAKI_____
   – DINOE/DIOTE_____
   – NENTORKIZUN_____
   – DAROE/DARAMATE_____
   – DAUKAGUZ/DAUZKAGU_____

3. *Ondorengo esaldiok: baiezkoak ezezka jarri, eta alderantziz: ezezkoak baiezka.*

   – Josebek ez daki zer dinoan/dioen ere!
   _____
   – Zure lagunek adarra joteko gogoa dauke/daukate.
   _____
   – Zergaitik daramatzazue nire apunteak?
   _____
   – Gaur ez daukat ikasteko gogorik!
   _____
   – Zuek ez dinozue/diozue egirik.
   _____
   – Kepak ez daki zuri zer pasau jatzun/zaizun.
   _____
   – Neuk daroadaz/daramatzat zure jantziak.
   _____

4. *Ondorengo erdal esaldiok euskeratu egizuz.*

   – ¿Quién tiene mis zapatos? ¿Lo sabe alguien? ¿Nadie dice nada?
   – No llevo cambio encima, pero puedo traer más tarde.
   – ¿Por qué usas siempre mis cosas? ¿Es que no sabes respetar lo ajeno?
   – Nuestros amigos llevan las cosas necesarias para el camping.

EGITE ERA: ORAIN ALDIA.–*"ZER-NORI-NORK".*–EROAN/ERAMAN.

ZER		NORI	NORK	
		ST	T	
		A/Na	K/N	
		TSO-TSA	-	
DA	-ROA	SKU (1)	GU	Z
		TSU	ZU	
		TSUE	ZUE	
		TSE	E	

ZER		NORI	NORK	
		KIT	T	
		K/N	K/N	
		KIO	-	
DA	-RAMA	KIGU	GU	Z
		KIZU	ZU	
		KIZUE	ZUE	
		KIE	TE	

NIRI

Daroastak/Zak	*Daramakidak/Zkidad*
Daroastana/Zana	*Daramakidan/Zkidan*
Daroast/aZ	*Daramakit*
Daroastazu/Z	*Daramakidazu*
Daroastazue/Z	*Daramakidazue*
Daroaste/Z	*Daramakidate*

GURI

Daroaskuk/Zak	*Daramakiguk/Zkiguk*
Daroaskun/Zana	*Daramakigun/Zkigun*
Daroasku/Z	*Daramakigu*
Daroaskuzu/Z	*Daramakiguzu*
Daroaskuzue/Z	*Daramakiguzue*
Daroaskue/Z	*Daramakigute*

HIRI

Daroaat/Zat	*Daramakiat/Zkiat*
Daroanat/Zanat	*Daramakinat/Zkinat*
Daroaa/Z	*Daramakik*
Daroana/Z	*Daramakin*
Daroaagu/Z	*Daramakiagu*
Daroanagu/Z	*Daramakinagu*
Daroe/Z	*Daramakiate*
Daroane/Z	*Daramakinate*

ZURI

Daroatsut/daZ	*Daramakisut/Zkizut*
Datsu/Z	*Daramakizu*
Daroatsugu/Z	*Daramakizugu*
Daroatsue/Z	*Daramakizute*

ZUEI

Daroatsuet/daZ	*Daramakizuet/Zkizuet*
Daroatsue/Z	*Daramakizue*
Daroatsuegu/Z	*Daramakizuegu*
Daroatsuee/Z	*Daramakizuete*

HARI

Daroatsat/daZ	*Daramakiot/Zkiot*
Daroatsak/Zak	*Daramakiok*
Daroatsana/Zana	*Daramakion*
Doaroatso/Z	*Daramakio*
Daroatsagu/Z	*Daramakiogu*
Daroatsazu/Z	*Daramakiozu*
Daroatsazue/Z	*Daramakiozue*
Daroatse/Z	*Daramakiote*

HAIEI

Daroatset/daZ	*Daramakiet/Zkiet*
Daroatsek/Zak	*Daramakiek*
Daroatsen/Zana	*Daramkien*
Daroatse/Z	*Daramakie*
Daroatsegu/Z	*Daramakiegu*
Daroatsezu/Z	*Daramakiezu*
Daroatsezue/Z	*Daramakizue*
Daroatsie/Z	*Daramakiete*

Oharra

"Objeto delakoa, NOR nahiz ZER, plurala denean, ezar iezaiezu -Z- soila erroaren ondoren -ki-dutenei. Begira, ordea, honakook: *eramazkiok/eramazkion, eramazkiek/ eramazkien, etb."* (Euskaltzaindia, EUSKAL ADITZ BATUA, 123. orrialdea).

(1) NORK eta NORI biak 3. pertsonak direnean -TSO- bestela -TSA-.

EGITE ERA: ORAIN ALDIA.–*"ZER-NORI-NORK".*–EKARRI.

ZER		NORI	NORK	
		ST	T	
		A/Na	K/Na	
		TSO -TSA--		
DA	-KAR	SKU (1)	GU	Z
		TSU	ZU	
		TSUE	ZUE	
		TSE	E	

ZER			NORI	NORK
			KIT	T
			K/N	K/N
			KIO	
DA	-KAR	Z	KIGU	GU
			KIZU	ZU
			KIZUE	ZUE
			KIE	TE

NIRI

Dakarstak/Zak	*Dakarkidad/Zkidad*
Dakarstana/Zana	*Dakarkidan/Zkidan*
Dakarst/aZ	*Dakarkit*
Dakarstazu/Z	*Dakarkidazu*
Dakarstazue/Z	*Dakardazue*
Dakarste/Z	*Dakardate*

HIRI

Dakarrat/Zat	*Dakarkiat/Zkiat*
Dakarrenat/Zat	*Dakarjinat/Zkinat*
Dakarra/Z	*Dakarkik*
Dakarna/Z	*Dakarkin*
Dakargu/Z	*Dakarkiagu*
Dakarnagu/Z	*Dakarkinagi*
Dakarrie/Z	*Dakarkiate*
Dakarne/Z	*Dakarkinate*

HARI

Dakartsat/daZ	*Dakarkiot/Zkiot*
Dakartsak/Zak	*Dakarkiok*
Dakartsana/Zana	*Dakarkion*
Dakartso/Z	*Dakarkio*
Dakartsagu/Z	*Dakarkiogu*
Dakartsazu/Z	*Dakarkiozu*
Dakartsazue/Z	*Dakarkiozue*
Dakartsie/Z	*Dakarkiote*

GURI

Dakarskuk/Zak	*Dakarkiguk/zkiguk*
Dakarskun/Zana	*Dakarkigun/zkigun*
Dakarsku/Z	*Dakarkigu*
Dakarskuzu/Z	*Dakarkiguzu*
Dakarskuzue/Z	*Dakarkiguzue*
Dakarskue/Z	*Dakarkigute*

ZURI

Dakartsut/daZ	*Dakarkizut/Zkizut*
Dakartsu/Z	*Dakarkizu*
Dakartsugu/Z	*Dakarkigu*
Dakartsue/Z	*Dakarkizute*

ZUEI

Dakartsuet/daZ	*Dakarkizuet/Zkizuet*
Dakartsue/Z	*Dakarkizue*
Dakartsuegu/Z	*Dakarkizuegu*
Dakartsuee/Z	*Dakarkizuete*

HAIEI

Dakartset/daZ	*Dakarkiet/Zkiet*
Dakartsek/Zak	*Dakarkiek*
Dakartsena/Zana	*Dakarkien*
Dakartse/Z	*Dakarkie*
Dakartsegu/Z	*Dakarkiegu*
Dakartsezu/Z	*Dakarkiezu*
Dakartsezue/Z	*Dakarkiezue*
Dakartsie/Z	*Dakarkiete*

Oharra

"Objeto delakoa, NOR nahiz ZER, plurala denean, ipin iezaiezu -Z- soila erroaren ondoren -ki-dutenei eta -ZKI- -ki- ez dutenei; esaterako: *dakarkiot/dakarzkiot, ekardazu/ekarzkidazu.* Begira, ordea, honakook: *ekarzkiok/ekarzkion, ekarzkiek/ekarzkien, ekarzkiozu, ekarzkiezu, ekarzkiozue, ekarzkiezue".* (Euskantzaindia, EUSKAL ADITZ BATUA, 118. orr.). Hemen esan direnak gorabehera, -Z- hartu daiteke pluralgiletzat bizkaieratik landa ere. Horrela NORI morfema KI-T, KI-O, etab. litzateke. (-ZKI- nire ustez hauxe besterik ez da: ZKI = Z+ KI).

(1) NORK eta NORI biak 3. pertsonak direnean -TSO-, bestela -TSA-.

EGITE ERA: ORAIN ALDIA.–*"ZER-NORI-NORK".*–ERABILI.

ZER		NORI	NORK	
		ST	T	
		A/Na	K/N	
		TSO -TSA--		
DA	-RABIL	SKU (1)	GU	Z
		TSU	ZU	
		TSUE	ZUE	
		TSE	E	

ZER			NORI	NORK
			KIT	T
			KIK/N	K/N
			KIO	-
DA	-RABIL	Z	KIGU	GU
			KIZU	ZU
			KIZUE	ZUE
			KIE	TE

NIRI

DarabilstakZak	*Darabilkidak/Zkidak*
Darabilstana/Zana	*Darabilkidan/Zkidan*
Darabilst/aZ	*Darabilkit*
Darabilstazu/Z	*Darabilkidazu*
Darabilstazue/Z	*Darabilkidazue*
Darabilste/Z	*Darabilkidate*

GURI

Darabilskuk/Zak	*Darabilkiguk/Zkiguk*
Darabilskun/Zana	*Darabilkigun/Zkigun*
Darabilsku/Z	*Darabilkigu*
Darabilskuzu/Z	*Darabilkiguzu*
Darabilskuzue/Z	*Darabilkiguzue*
Darabilskue/Z	*Darabiligute*

HIRI

Darabilat/Zat	*Darabilkiat/Zkiat*
Darabilenat/Zat	*Darabilkinat/Zkinat*
Darabila/Z	*Darabilkik*
Darabilna/Z	*Darabilkin*
Darabilagu/Z	*Darabilkiagu*
Darabilnagu/Z	*Darabilkinagu*
Darabile/Z	*Darabilkiate*
Darabilne/Z	*Darabilkinate*

ZURI

Darabiltsut/daZ	*Darabilkizut/Zkizut*
Darabiltsu/Z	*Darabilkizu*
Darabiltsugu/Z	*Darabilkizugu*
Darabiltsue/Z	*Darabilkizute*

ZUEI

Darabiltsue/daZ	*Darabilkizuet/Zkizuet*
Darabiltsue/Z	*Darabilkizue*
Darabiltsuegu/Z	*Darabilkizuegu*
Darabiltsuee/Z	*Darabilkizuete*

HARI

Darabiltsat/daZ	*Darabilkiot/Zkiot*
Darabiltsak/Zak	*Darabilkiok*
Darabiltsana/Zana	*Darabilkion*
Darabiltso/Z	*Darabilkio*
Darabiltsagu/Z	*Darabilkiogu*
Darabiltsazu/Z	*Darabilkiozu*
Darabiltsazue/Z	*Darabilkiozue*
Darabiltse/Z	*Darabilkiote*

HAIEI

Darabiltset/daZ	*Darabilkiet/Zkiet*
Darabiltsek/Zak	*Darabilkiek*
Darabiltsen/Zana	*Darabilkien*
Darabiltse/Z	*Darabilkie*
Darabiltsegu/Z	*Darabilkiegu*
Darabiltsezu/Z	*Darabilkiezu*
Darabiltsezue/Z	*Darabilkiezue*
Darabiltsie/Z	*Darabilkiete*

Oharra

(1) NORI = HARI denean, bizkaieraz, -TSO- barik -TSA- egiten da. Forma hau -TSO- jatorragotzat joten da NORI morfemaren ondoren beste zerbait datorrenean, baina bestela -TSO-, adibidez, "darabiltTSO".

EGITE ERA: ORAIN ALDIA.–*"ZER-NOR-NORK".*–*INO (ESAN).

ZER		NORI	NORK	
		ST	T	
		A/Na	K/N	
		TSO -TSA--		
D	-INO	SKU (1)	GU	Z
		TSU	ZU	
		TSUE	ZUE	
		TSE	E	

ZER	NORI	NORK
Batuak ez dauka adizki hau. Ikusi: "Euskaltzaindia, EUSKAL ADITZ BATUA, 176. orr.		

NIRI

Dinostak/Zak
Dinostana/Zana
Dinost/aZ
Dinostazu/Z
Dinostazue/Z
Dinoste/Z

GURI

Dinoskuk/Zak
Dinoskun/Zana
Dinosku/Z
Dinoskuzu/Z
Dinoskuzue/Z
Dinoskue/Z

HIRI

Dinoat/Zat
Dinonat/Zanat
Dinoa/Z
Dinona/Zana
Dinoe/Z
Dinone/Z

ZURI

Dinotsut/daZ
Dinotsu/Z
Dinotsugu/Z
Dinotsue/Z

ZUEI

Dinotsuet/daZ
Dinotsue/Z
Dinotsuegu/Z
Dinotsuee/Z

HARI

Dinotsak/daZ
Dinotsak/Zak
Dinotsana/Zana
Dinotso/Z
Dinotsagu/Z
Dinotsazu/Z
Dinotsazue/Z
Dinotsie/Z

HAIEI

Dinotsek/daZ
Dinotsek/Zak
Dinotse/Z
Dinotse/Z
Dinotsegu/Z
Dinotsezu/Z
Dinotsezue/Z
Dinotsiee/Z

Oharra

Adizkera hau asko erabilten da, bai ahoz eta bai idatziz. Eta bizkaieratik landa gaur erabilten ez denarren, Leizarragarengan irakurtzen dira "diotso" ta holako adizkerak.

(1) NORK eta NORI biak 3. pertsonak direnean -TSO-, bestela -TSO-.

ARIKETAK

1. *Hutsunak bete emoten den aditza egokiro jarriaz.*

   – Nora_____zuei morroiak artaldea? (eroan)
   – Gorbeara_____guri morroiak artaldea. (eroan)
   – Hemen_____Nekanek zuk lehengo egunean berari eskatutako argazkiak. (ekarri)
   – Udako ikastaroak sekulako lanbideak_____guri urte barruan lan egiteko. (ekarri)
   – Baina, zer_____horrek ume lotsabako horrek zuei? (ino = esan).
   – Parra parra guzurrak_____ume honek guri ere (ino = esan).
   – Zertarako_____zuk niri kotxea, rodajea egiteko, ala? (erabili).
   – Nork_____zuri papelak pasaportea atarateko? (ekarri).
   – Baina, Krispintxo, nora_____nire betaurrekoak? (zuk-niri: eroan/eraman).

2. *Esaldiak egin ondorengo aditz bakoitzaz baliaturik.*

   – DINOSTAZU_____
   – DAKARTSAGU/DAKARKIOGU_____
   – DINOTSUET_____
   – DAROATSU/DARAMAKIZU_____
   – DARABILTSO/DARABILKIO_____
   – DAROAGU/DARAMAKIAGU_____

3. *Erdal esaldiok euskeratu egin behar dituzu.*

   – Os traemos buenas noticias: nos han dicho que sí.
   – Nos usáis el coche sin permiso, y luego nos decís que no habéis sido vosotros.
   – Te llevo el periódico de hoy, ¡eh!
   – Nosotros ya se lo decimos pero no nos hacen caso.
   – ¿Quién te trae semejantes noticias...!?
   – Ese chaval no te dice una sola verdad.
   – ¿Qué me traes de bueno hoy, mi querido Baldomero?

4. *Ondorengo esaldiok osotu, zeuk nahi duzun elementu egoki bat sartuaz.*

   – Horrela ibilteko zuk ez_____bururik!
   – Lagunak, beti_____egon nahi izaten du.
   – Otsoak_____ez du jaten, eta lapurrak_____laztandu!
   – Ikasturtea_____da, baina beharrezkoa_____gero aprobatzeko.
   – Kepa_____zetorrela, buruz aurrera jausi eta luze gelditu zan.
   – Nork_____deutsu/dizu hona etorteko?

5. *Ondorengo esaldiotan agertzen diren NOR, ZER, NORK, NORI, eta aditza bera ere bai, kuadroan sartu, elementu bakoitza bere tokian.*

   0. Lapurrak gizon zuzenari iguina emoten deutso/dio.
   1. Etxetik dakartsudaz/dakarzkizut tabakorria ta mistoak.
   2. Nere aitak amari gona gorria ekarri.
   3. Jokoan hasiko bagina diru guztiak irabaziko neuskizuz/nizkizuke.
   4. Semeak bere aitari lanean lagun egiten deutso/dio.
   5. Hor dakarsku/dakarkigu Loontzok gaurko lana.

	NORK	NORI	ZER	ADITZA	LAGUNTZ
0	Lapurrak	gizon zuzenari	iguina	emoten	deutso/dio
1	.....	.....	.....	.....	.....
2	.....	.....	.....	.....	.....
3	.....	.....	.....	.....	.....
4	.....	.....	.....	.....	.....
5	.....	.....	.....	.....	.....

6. *Ondorengo esaldiotan agertzen diren aditz perifrastikoak kendu eta adizkera berdineko (NOR, edo NOR-NORK, edo ZER-NORI-NORK) soila jarri.*

— Hemen ekarten deutsudaz/dizkizut zuk eskatutako gozokiak.
— Zer esaten deustazu/didazu baina Kaxemira? Holakorik!!!
— Nora eroaten deutsuz/dizkizu ume horrek zure oinetakoak?
— Gaur ez dot eukiten ikasteko gogorik, bat ere ez!
— Hori galdera egin didazuna/deustazuna? Batek ba jakiten dau hori!
— Zuen artean inork eukiten dau tabakorik? Zigarrotxo bat erreko neuke ba oraintxe!

EGITE ERA: IRAGANA.–*"NOR-NORI".*–ETORRI, JOAN, IBILI, EGON.

NOR		NORI	
---		KIT	
---		KI /KINa	
E	-TOR	KIO	
---	-OA	KIGU	Z aN
---	-BIL	KIZU	Z
---	-GO	KIZUE	eZ
E		KIE	

NOR			NORI	
---			KIT	
---	-TOR		KIK/KIN	
ZE	-OA		KIO	
---	-BIL	Z	KIGU	N
---	-GO	Z	KIZU	
---		Z	KIZUE	te
ZE		Z	KIE	

NEINTEKE ahoz-ahozko erabilketan behintzat -TE- galdu ondoren 'NEIKE' bihurtzen da, eta bizkaierazko 'NEIKE' transitiboarekin nahastu. Beraz, kontuz! Iragangaitzetako -TE- hau gordegarria da.

Adizkera berau, eta bardin jarraikoak ere, -N bat gehituz iragana bihurtzen da. Ikusi ondoren, baina NOR = 3. Bizkaieraz ∅, eta batuaz Z-.

AHAL ERA: IRAGANA.–*"NOR".–*

NOR					
N en					
H en					
e					
G en	-I	te	KE	Z	aN
Z en				Z	
Z en				Z	
e				Z	

NOR				
N in				
H in				
Z i				
G in	te	Z	KE	eN
Z in		Z		
Z in		Z		
Z i		Z		

NI	Neintekean
HI	Heintekean
HA	(Z) Eitekean
GU	Geintekezan
ZU	Zeintekezan
ZUEK	Zeintekezen
HAIEK	(Z) Eitekezan

NI	*Nintekeen*
HI	*Hintekeen*
HA	*Zitekeen*
GU	*Gintezkeen*
ZU	*Zintezkeen*
ZUEK	*Zintezketen*
HAIEK	*Zitezkeen*

ARIKETAK

1. *Ondorengo esaldiok aldatu egizuz: baiezkakoak ezezka jarri eta alderantziz, ezezka daudenak, baiezka jarri egizuz.*

   – Ni ezin naiteke horrela bizi.
   – Etorri zeintekez gurera bihar iluntzean?
   – Hori horrela izan leiteke, baina nik ez dut uste.
   – Honera etor(ri) zeintekeze?
   – Moskorra ezin daiteke iturriko uraz bizi.
   – Kepa ta Koldo etxera garaiz etor(ri) litezke.
   – Baina nora joan eitekezan/zitezkeen ume horreik?
   – Ordurako hel(du) neintekean, baina... oharkabe denpora pasatu...!
   – Baina, hori nola izan daiteke, ba?
   – Hemen ere horrelako zarbait gerta liteke.

2. *Ondorengo esaldiotan daukazun hutsunea bete egizu, zeuk egokitzat joten dozun hitz bat jarriaz.*

   – Etxetik_____lapurrak urten euskuen/atera zitzaizkigun.
   – Horrenbeste diruz ezin_____bide honetik ibili, esan zuten.
   – Argi ez baldin bazabiltza_____gerta dakizuke/daitekizu.
   – Mirenek_____amari lagun bat_____ordez, bera etorri zitzaion/jakon.
   – Zu bezalako alfer bat_____ote liteke lanik egin gabe?
   – Begirune handiz urreratu_____gizon handia da eta.
   – _____gona polita erosi dozun...! Asko_____zait/jat.
   – Nondik norako_____dator bide horretatik?

3. *Ondorengo aditz bakoitzaz baliaturik esaldi bat egizu.*

   – ZINTEZKETE/ZEINTEKEZE_____
   – ETOR LEITEKE/LITEKE_____
   – EZIN GEINTEKEZ/GINTEZKE_____

AHAL ERA: HIPOTETIKOA (BEHAR BADA...).–*"NOR-NORI".*–

Erderazko: podría... (tal vez, pero no es seguro) "Etorri neintekizu, nahi izan ezkero".

NOR			NORI		
H en			T		
H en			K/		
L e			O		
G en	-*d*I	TE	K*e*-KI	GU	Z
Z en				ZU	Z
Z en				ZUE	Z e
L e				E	Z

NOR	NORI				
N en	KI		T		
H en	KI		K/N		
L e	KI		O		
G en	KI	Z-ki	GU	KE	
Z en	KI	Z-ki	ZU		
Z en	KI	Z-ki	ZUE		te
L e	KI	Z-KI	E		

NIRI

Heintekit	*Henkidake*
Leitekit	*Lekidake*
Zeintekidaz	*Zenkizkidake*
Zeintekidaze	*Zenkizkidakete*
Leitekidaz	*Lekizkidake*

HIRI

Neintekik/n	*Nenkiake/nake*
Leitekik/n	*Lekiake/nake*
GeintekiZak/Zan	*Genkizkiake/nake*
LeitekiZak/Zan	*Lekizkiake/nake*

HARI

Neintekio	*Nenkioke*
Heintekio	*Henkioke*
Leitekio	*Lekioke*
Geintekioz	*Genkizkioke*
Zeintekioz	*Zenkizkioke*
Zeintekioze	*Zenkizkioke*
Leitekioz	*Lekizkioke*

GURI

Heintekigu	*Henkiguke*
Leitekigu	*Lekiguke*
Zeintekiguz	*Zekizkiguke*
Zeintekiguze	*Zenkizkigukete*
Leitekiguz	*Lekizkiguke*

ZURI

Neintekizu	*Nenkizuke*
Leitekizu	*Lekizuke*
Geintekizuz	*Genkizkizuke*
Leitekizuz	*Lekizkizuke*

ZUEI

Neintekizue	*Nenkizueke*
Leitekizue	*Lekizueke*
Geintekizuez	*Genkizkizueke*
Leitekizuez	*Lekizkizueke*

HAIEI

Neintekie	*Nenkieke*
Heintekie	*Henkieke*
Leitekie	*Lekieke*
Geintekiez	*Genkizkieke*
Zeintekiez	*Zenkizkieke*
Zeintekieze	*Zenkizkiekete*
Leitekiez	*Lekizkieke*

Oharra (1)

Bizkaierazko adizkera honetan aldakuntza bi egiten dira:

– Elipsis, edo izkutatze bat: -DI- = -I-; -D- galdu egiten da.

– Metatesis edo toki-aldaketa: NenIteke = Ne I Nteke.

– Batuzko adizkera honetan kontuan hartu: -ZKI- NORI morfema barruan tartekatzen dela.

Adizkera hau -N bat gehituz IRAGANA bihurtzen da: Pude, podía haber...
Adibidez, "Etorri neintekizuN = pude (podía)haber(te) venido. Baina NOR = 3. denean Bizkaieraz NOR = ∅, batuaz NOR = Z-.

ARIKETAK

1. *Ondorengo erdal esaldiok euskeratu egizuz.*

   – En cualquier momento podrían entrarnos los ladrones.
   – Podría ir a acompañarle a mi madre.
   – Podrían venir los amigos para ir a dar una vuelta por ahí.
   – Te podría tocar la lotería cualquier día.
   – Podría venirnos el profesor de matemáticas a casa.
   – Pudo haberte sucedido algo terrible.
   – Podíamos haberle ido a visitar al hospital, pero no sabíamos que estuviera ingresado.
   – Al rico podrían haberle venido los ladrones.
   – Los amigos podrían venirnos a tomar el café en nuestra compañía.

2. *Ondorengo indikatibozko adizki hauek, aldatu egizuz ahal erara.*

   – Ni ere etorri ahal izango nintzan kotxea euki baneu.
   – Gure aita zenak ezin izaten zuen berandu etorri inoiz.
   – Etorri ahal duzu hona, mesedez?
   – Irakaslea etorri alhal jatzuen/zitzaizuen etxera, ezta?
   – Lapurrak sartu ahal jatzuezan/zitzaizkizuen etxera, beti atea zabalik eukiten zenuten eta.
   – Amari laguntzera joan ahal zintzakozan/zintzaizkion.
   – Ixilik ezin egon izaten nintzan.

3. *Ondorengo aditz bakoitzaz esaldi bat osotu.*

   – NEINTEKEEN_____
   – JOAN LEITEKIDAZ/LEKIZKIDAKE_____
   – EZIN HENKIGUKE/HEINTEKIGU_____
   – EGON GEINTEKIZUZ/GENKIZKIZUKE_____
   – SAR NENKIOKE/NEINTEKIO_____
   – ETOR LEITEKIOZ/LEKIZKIOKE_____
   – IZAN NEINTEKIEN/NENKIEKEEN_____

AHAL ERA: HIPOTETIKOA (BEHAR BADA...).—*"NORK-ZER".*—

Erderazko: Podría... Adibidez: Podría vender = Saldu nei(ke).

NOR			ZER	
N e				
H e				
L e				
G en	-*gl*	KE	Z	
Z en				
Z en	(1)		e	
L e			e	

NORK	ZER			
N e (2)				
H e				
L e				
G ene	it	-ZA	KE	
Z ene				
Z ene				te
L e				te

HA / HAIEK

NIK	Nei/Neiz
HIK	Hei/Heiz
HARK	Lei/Leiz
GUK	Ginei/Gineiz
ZUK	Zinei/Zineiz
ZUEK	Zineie/Zineiez
HAIEK	Leie/Leiez

edo baita ere: (3)

NIK	Neike/Z
HIK	Heike/Z
HARK	Leike/Z
GUK	Geinke/Z
ZUK	Zeinke/Z
ZUEK	Zeinkie/Z
HAIEK	Leikie/Z

HA / HAIEK

NIK	*Nezake/Nitzake*
HIK	*Hezake/Hitzake*
HARK	*Lezake/Litzake*
GUK	*Genezake/Genitzake*
ZUK	*Zenezake/Zenitzake*
ZUEK	*Zenezakete/Zenitzakete*
HAIEK	*Lezakete/Litzakete*

Oharrak

(1) Iraganeko NORK-eri dagokion -n- hori erroaren -I- ondoren jarri ohi da, bizkaieraz. Adibidez, GeiNke, eta ez "GeNgike", eta gutxiago "GeNike".

(2) Batuaz NORK-eri dagokion -e- horren ondorenez -it- pluralgilea jarri behar denetan -e- galdu egiten da. Adibidez, "Nezake", baina "Nitzake", eta ez "Neitzake".

(3) Bizkaieraz forma biak bizi dira: "Egin NEI", eta "Egin NEIKE". Eta herriaren ahotan gehiago entzuten da "NEI, etab."

(4) Adizkera honetan "NOR-NORK" baino "NORK-ZER(nor) gehiago erabili ohi da. Horregaitik lehenengoa bakarrik sartu dogu hemen testoan. Beste, NOR-NORK ikusi ERASKINEAN, 182. orrialdean.

Adizkera hau AHAL ERAKO IRAGANA bihurtzen da: hirugarrena denean NORK, kendu L- eta bizkaieraz ∅, batuaz Z- jarri. Eta horrez gainera -N iraganaren atzizkia gehitu behar da.

ARIKETAK

1. *Ondorengo esaldiotako hutsuna bete egizu aditza egokiro jarriaz.*

   – Nik senargaia nerekin ekar(ri)_____/_____, baina ez du berak nahi izango.
   – Koldok lanpostu hori irabazi_____/_____, baina ez da presentatuko.
   – Sabinek laguntzat Kepa har(tu)_____/_____, baina ez zuen nahi izan.
   – Lehengo egunean guk Erremon ikus(i)_____/_____eta zure errekadua har-(tu)_____/_____hark, baina ez genkian etxean zegoenik.
   – Lehenago ere zuek berebil barria ekar(ri)_____, baina gastuak bildurtu egin zinduezan/zintuzten, ezta?
   – Nahi beste garagardo har(tu)_____hara joandakoan, han ugari dago eta.
   – Oinetako barri batzuk eros(i)_____baina gero zer egingo dogu horrenbeste oinetakoz?

2. *Ondorengo esaldiotako NOR/ZER guztiak aldatu egizuz: singularrekoak pluralera, eta alderantziz.*

   – Gabaz dabilenak argirik ezin ikusi daike/dezake.
   – Begi txarrekoak besteren onik ezin ikus(i) daike/dezake.
   – Baina, gizonak hori nola egin lezake/lei?
   – Nik neuk, horrelakorik ezin neike/nezake egin!
   – Zure lagunek horrelakoak egin ditzakete/daikiez.
   – Nork esan lei/lezake ezetzik?
   – Nahi izanez gero, geuk har(tu) ginei/genezake ardura hori.
   – Txakurrak ezin daike/dezake haturik ikusi bere inguruan.
   – Zergaitik egin lei/lezake horrelakorik?

3. *Ondorengo erdal esaldiok euskeratu.*

   – ¿Podríais llevarme a Gasteiz?
   – Sí, podríamos llevarte hasta donde quisieras.
   – Podríamos perderos con una simple denuncia.
   – Cualquier momento podrían pillarte en la mentira.

AHAL ERA: HIPOTETIKOA (BEHAR BADA...).—*"NORK-NORI-ZER".*—BIZKAIERAZKOA

Erderazko: Podría... Adibidez, "Neuk ekarri NEI(ki)ZU gura bazengi". Podría traértelo si quisieras...

NORK			NORI	ZER
N e			T	
H e			K/Na	
L e			O	
G en	*-gi*	KE	GU	Z
Z en			ZU	
Z en			ZUE	e
L e			E	e

NORK		NORI	ZER
N e		T	
H e		K/Na	
L e		O	
G ine	*-gi*	GU	Z
Z ine		ZU	
Z ine		ZUE	e
L e		E	e

NIRI

Heiket/dai
Heikit/Zak
Leikit/daZ — Leit/LeidaZ
Zeinkit/daZ — Zineit/Zineidaz
Zeinkide/Z — Zineide/Z
Leikide/Z — Leide/Z

HIRI

Neikik/Zak — Neik/Neizak
Neikin/Zana — Neikin/NeikinaZ
Leikik/Zak — Leik/LeiZak
Leikin/Zana — Lein/LeinaZ
Geinkik/Zak — Gineik/Gineizak
Geinkin/Zana — Ginein/Gineinaz
Leikike/Z
Leikine/Zena

HARI

Neikio/Z — Neio/Z
Heikio/Z — Heio/Z
Leikio/Z — Leio/Z
Geinkio/Z — Gineio/Z
Zeinkio/Z — Zineio/Z
Zeinkie/Z — Zineie/Z
Leikie/Z — Leie/Z

GURI

Heikigu/Z — Heigu/Z
Leikigu/Z — Leigu/Z
Zeinkigu/Z — Zineigu/Z
Zeinkigue/Z — Zineigue/Z
Leikigue/Z — Leigue/Z

ZURI

Neikizu/Z — Neizu/Z
Leikizu/Z — Leizu/Z
Geinkizu/Z — Gineizu/Z
Leikizue/Z — Leizue/Z

ZUEI

Neikizue/Z — Neizue/Z
Leikizue/Z — Leizue/Z
Geinkizue/Z — Gineizue/Z
Leikizue/Z — Leizuee/Z

HAIEI

Neikie/Z — Neioe/Z
Heikie/Z — Heie/Z
Leikie/Z — Leiei/Z
Geinkie/Z — Gineie/Z
Zeinkie/Z — Zineie/z
Zeinkiee/Z — Zineie/Z
Leikiee/Z — Leie/Z

Oharra

Erabilpidean, nohizpeinka, AHAL ezaugarri den -KE-, -KI- bihurtzen da. Bai literatura mailan, eta bai ahoz-ahozko erabilpide arruntean, Bizkaian, bigarren formak gehiago aurkitzen dira: NEIO, NEIZU, ZINEIO, eta abar. Besteak ez dauke tradizio gehiegirik. Beraz, hobe bigarrenok erabili.

AHAL ERA: HIPOTETIKOA (BEHAR BADA...).—*"NORK-NORI-ZER".*—BATUAZKOA

Erderazko: Podría... Adibidez, "Neronek ekar niezaioke, nahi baldin baleza". Yo podría traérselo, si quisiera...

NORK	ZER	NORI	
N ie		*T*	
H ie		*K/N*	
L ie		*i O*	
G enie	**-ZA**	*Z -ki GU KE*	
Z enie		*ZU*	
Z enie		*ZU*	*te*
L ie		*E*	*te*

NIRI

Hiezadake/Hizazkidake
Lieza-dake
Zenieza-dake
Zenieza-dakete
Lleza-dakete

HIRI

Nieza-ake
Nieza-nake
Lieza-nake
Genieza-ake
Genieza-nake
Lieza-zakete
Lieza-nakete

HARI

Nieza-ioke
Hieza-ioke
Lieza-ioke
Genieza-ioke
Zenieza-ioke
Zenieza-iokete
Lieza-iokete

GURI

Hieza-guke
Lieza-guke
Zenieza-guke
Zenieza-gukete
Lieza-gukete

ZURI

Nieza-zuke
Lieza-zuke
Genieza-zuke
Lieza-zuekete

ZUEI

Nieza-zueke
Lieza-zueke
Genieza-zueke
Lieza-zuekete

HAIEI

Nieza-ieke
Hieza-ieke
Lieza-ieke
Genieza-ieke
Zenieza-ieke
Zenieza-iekete
Lieza-iekete

Oharra

Adizkera hau bitxia da. Ez da bat ere gomendagarri bere erabilpidea.

ARIKETAK

1. *Ondorengo esaldiok aldiz aldatu: orainaldikoak iraganera edo hipotetiko (gero aldira), edo iraganera. Baina beti ahal eraz.*

   – Apur baten geldi egon zeintekez?
   – Kepa ezin daiteke joan ibililaldira.
   – Hori horrela ere egin zitekeen/eitekean.
   – Geldi egon geintekezan/gintezkeen, baina ezin izan genuen.
   – Baleiteke hori horrela izatea, baina nik ez dut sinisten.
   – Nolako gizon mota izan daiteke mutil hori horren bihotz gogorrekoa izateko?
   – Ni ezin naiteke zure inguruan bizi!
   – Gauaz dabiltzenak ezin izan daitezke argi-zaleak.

2. *Ondorengo aditz bakoitzaz baliaturik esaldi bat egizu.*

   – ETOR(I) LITEKE_____
   – EMAN ZEINKIO/ZENIEZAIOKE_____
   – EKAR(I)LIEZAZKINAKE/LEIKIZANA_____
   – ETOR(I)GAITEKIZUZ/GAKIZKIZUKE_____
   – EROS(I) NEIZUEZ/NIEZAZKIZUEKE_____
   – ERAMAN/EROAN DITZAKE/DAIKEZ_____
   – EROR(I)GEINTEZKE_____
   – SAR(TU)LEITEKIZUZ/LEKIZKIZUKE_____

3. *Ondorengo esaldiotan aurkitzen dituzun hutsunak bete egizuz.*

   – Langileek edonoiz eska(tu)_____guri kontua.
   – Horrela edozein bizi_____
   – Hori, gizon hori, ezin_____izan euskalduna.
   – Nik ezelan/inola ere ezin_____egin holakorik neure lagun bati.
   – Batek badaki nondik etor(ri)_____-n gure arteko gorrotoa.
   – Zuk ekar(ri)_____niri zorionik?
   – Gutxien uste dutenean lapurrak sar(tu)_____zuen gurasoei etxean.
   – Zu ezin_____kontu horiekin zeure aitari joan!
   – Nahi duzuenean bota_____filme hori aurrei.
   – Guk bururik ezin_____gal(du), baina dirua bai!
   – Neure anaiari joan_____laguntzera, zeuk gura izan ezkero.
   – Esan_____(zuk niri) herriko alkatea non bizi den?
   – Odolik gabe bizi al_____gizonaren bihotza?
   – Neguan gu ezin_____itsasoko uretan sartu.
   – Esan_____andereiñoak umeei ixilik egoteko, baina ez eutsen/zien kasurik egin.

4. *Ondorengo esaldiotako NOR/ZER guztiak eta NORK/ZER guztiok aldatu egizuz: singularrekoak pluralera, eta alderantziz.*

   – Zure lagunak etorri daitekez, bihar edo etzi.
   – Mesedetxo bat egin daikedazu/diezadakezu?
   – Etxera joan zaitekeze/zaitezkete, nahi baduzue.
   – Dantzariak ekar(ri) daikezuz/ditzakezu, jaietarako?
   – Lanpostu hori lor(tu)daike/dezake.
   – Ezin geintekez/Gintezke horrela ibili!
   – Ikasleak etor(ri)eitekezan/zitezkeen, baina ez ziren etorri.
   – Joan heintekio/henkioke osabari berri hauek ematera?

– Nik ez nezake/neike horrelakorik egin. Ez!
– Zure lagunek ekar(ri) leikie/lezakete kotxea Bilbotik.
– Txarto dabilenak ezin daike/dezake bestern onik inolaz ere ikus(i).
– Donostiara eroan/eraman zeinkide/zeniezadakete.
– Nork ekar(ri) leikit/liezadake baso bete ur presko iturritik?

AGINTE ERA: ADITZ SOILA

AGINTE ERA.–*"NOR"*.–ETORRI, IBILI, JOAN, EGON.

NOR			
H a			
B e	-TOR		
	-BIL		
Z a	-OA	Z	
Z a	-GO	Z	e
B e		Z	

NOR			
H a			
B e	-TOR		
	-BIL		
Z a	-OA	Z/DE/TZA	
Z a	-GO	ZTE/DE/TZA	te
B e		Z/DE/TZA (1)	

	(Natorren)	
Hator		*Hator*
Betor	(Datorrela)	*Betor*
	(Gatozan)	
Zatoz	*(erdu)* (2)	*Zatoz*
Zatoze	*(erduze)*	*Zatozte*
Betoz	(datozela)	*Betoz*
	(Nabilen)	
Habil		*Habil*
Bebil	(Dabilela)	*Bebil*
	(Gabiltzan)	
Zabiz/Zabiltza		*Zabiltza*
Zabize/Zabiltze		*Zabiltzate*
Bebiz	(Dabiltzala)	*Bebiltza*

	(No*i*an)	
Hoa		*Hoa*
Beioa	(Do*i*ala)	*Bihoa*
	(Goazen)	
Zoaz		*Zoaz*
Zoaze		*Zoazte*
Beioaz	(Do*i*azala)	*Bihoaz*
	(Nagoen)	
Hago		*Hago*
Bego	(Dagoela)	*Bego*
	(Gagozen)	
Zagoz		*Zaude*
Zagoze		*Zaudete*
Begoz	(Dagozela)	*Beude*

Oharrak

(1) Batuazko pluralgileak: -Z- ETORRI eta JOAN aditzekin. -DE- EGON aditzarekin, -TZA- IBILI aditzarekin.

(2) Bizkaierazko ERDU/ERDUZE (ERDUZIE) jator eta erabilgarri dira, nondik norakoak diren argi ez dagoenarren.

Bizkaieraz, NATORREN, GOAZEN, etab. asko erabilten diren ezkero AGINTE ERAN sartu ditut, nahiz eta berenez SUBJUNTIBOZKOAK izan morfologia aldetik.

ARIKETAK

1. *Ondorengo esaldiotan hutsuneak bete aditz soila erabiliaz.*

   — _____hona, Kepa! (etorri).
   — _____hementik (hi joan) etxera, eta ez barriz hona etorri, gero!
   — _____mutil, etxera!
   — _____(zuek joan) hemendik, gogaitu egin nozue ta horrenbeste berriketaz.
   — _____nire altzora, umetxo maite hori!
   — _____hortxe berton, urreratu barik. (hi egon).
   — _____azkar ohera, bihar goizean garaiz jaikitzeko!
   — _____umeak eskolan neu bertara joan arte!

2. *Erdal esaldiok euskeratu egizuz.*

   — Vete de aquí cuanto antes.
   — Ven pronto a casa, sin estar hasta última hora.
   — Andad con cuidado en la carretera!
   — Estáte quieto, niño!
   — Venga él mismo inmediatamente!
   — Que se vaya al cuerno!

3. *Ondorengo aditz bakoitzaz esaldi bat egin.*

   — ZOAZE/ZOAZTE_____
   — BEGO_____
   — ZABILTZATE_____
   — BEBIL_____
   — HAGO_____
   — BEBILTZA_____
   — HATOR_____
   — ZAUDETE_____

AGINTE ERA.–*"NOR-NORI".*–ETORRI.

NOR		NORI	
		T	
H a		(Za) K/Na	(1)
B e		O	
	-TOR	KU	
Z a		TZU	Z
Z a		TZUE	Z e
B e		KE	Z

NOR			NORI	
			KI T	
H a			KIK/KIN	
B e			KIO	
	-TOR		KIGU	
Z a		Z	KIZU	
Z a		Z	KIZUE	te
B e		Z	KIE	

NIRI

Hatort	*Hatorkit*
Betort	*Betorkit*
Zatordaz	*Zatozkit*
Zatordaze	*Zatozkidate*
Betordaz	*Betozkit*

HIRI

Betork	*Betorkik*
Betorna	*Betorkin*
BetorZak	*Betozkik*
BetornaZ	*Betozkin*

HARI

Hatorko	*Hatorkio*
Betorko	*Betorkio*
Zatorkoz	*Zatozkio*
Zatorkoze	*Zatozkiote*
Betorkoz	*Betozkio*

GURI

Hatorku	*Hatorkigu*
Betorku	*Betorkigu*
Zatorkuz	*Zatozkigu*
Zatorkuze	*Zatozkigute*
Betorkuz	*Betozkigu*

ZURI

Betortzu	*Betorkizu*
Betortzuz	*Betozkizu*

ZUEI

Betortzue	*Betorkizue*
Betortzuez	*Betozkizue*

HAIEI

Hatorke	*Hatorkie*
Betorke	*Betorkie*
Zatorkez	*Zatozkie*
Zatorkeze	*Zatozkiete*
Betorkez	*Betozkie*

Oharra

(1) NIRI = hiri denenko pluralgilea NORI aurretik jarri ohi da. Beraz, "betorZak" eta ez "betorkaZ".

AGINTE ERA.–*"NOR-NORI".*–IBILI.

NOR		NORI		
		T		
H a		(Za) K/Na	(1)	
B e		KO		
	-BIL	KU		
Z a		TZA	Z	
Z a		TZUE	Z	e
B e		KE	Z	

NOR		NORI		
		KIT		
H a		KIK/KIN		
B e		KIO		
	-BIL	KIGU		
Z a		KIZU	Z	
Z a		KIZUE	Z	te
B e		KIE	Z	

NIRI

Habilt	*Habilkit*
Bebilt	*Bebilkit*
Zabildaz	*Zabilzkit*
Zabildaze	*Zabilzkidate*
Bebildaz	*Bebilzkit*

HIRI

Bebilk	*Bebilkik*
Bebilna	*Bebilkin*
Bebilzak	*Bebilzkik*
Bebilzana	*Bebilzkina*

HARI

Habilko	*Habilkio*
Bebilko	*Bebilkio*
Zabilkoz	*Zabilzkio*
Zabilkoze	*Zabilzkiote*
Bebilkoz	*Bebilzkio*

GUERI

Habilku	*Habilkigu*
Bebilku	*Bebilkigu*
Zabilkuz	*Zabilzkigu*
Zabilkuze	*Zabilzkigute*
Bebilkuz	*Bebilzkigu*

ZURI

Bebiltzu	*Bebilkizu*
Bebiltzuz	*Bebilzkizu*

ZUEI

Bebiltzue	*Bebilkizue*
Bebiltzuez	*Bebilzkizue*

HAIEI

Habilke	*Habilkie*
Bebilke	*Bebilkie*
Zabilkez	*Zabilzkigie*
Zabilkeze	*Zabilzkiete*
Bebilkez	*Bebilzkie*

Oharra

(1) NORI = hiri deneko plurala, bizkaieraz, NORI morfemaren aurretik jarri ohi da. Adibidez, "bebilZak" eta ez haiek hiri "bebilkaZ".

AGINTE ERA.–*"NOR-NORI".*–JOAN.

NOR			NORI		
			T		
H(a)		(Za)	K/Na	(1)	
B *ei*			KO		
	-OA		KU		
Z(a)			TZU	Z	
Z(a)			TZUE	Z	e
B *ei*			KE	Z	

NOR			NORI		
			KIT		
H(a)			KIK/KIN		
B(e)			KIO		
	-OA		KIGU		
Z(a)		Z	KIZU		
Z(a)		Z	KIZUE		te
B(e)		Z	KIE		

NIRI

Hoat	*Hoakit*
Beioat	*Bihoakit*
Zoadaz	*Zoazkit*
Zoadaze	*Zoazkidate*
Beioadaz	*Bihoazkit*

HIRI

Beioak	*Bihoakik*
Beioana	*Bihoakin*
Beioazak	*Bihoazkik*
Beioazana	*Bihoazkin*

HARI

Hoako	*Hoakio*
Beioako	*Bihoakio*
Zoakoz	*Zoazkio*
Zoakoze	*Zoazkiote*
Beiakoz	*Bihoazkio*

GURI

Hoaku	*Hoakigu*
Beioaku	*Bihoakigu*
Zoakuz	*Zoazkigut*
Zoazkuze	*Zoazkigute*
Beioakuz	*Bihoazkigu*

ZURI

Beioatzu	*Bihoazkizu*
Beioatzuz	*Bihoazkizu*

ZUEI

Beioatzue	*Bihoakizue*
Beioatzuez	*Bihoazkizue*

HAIEI

Hoake	*Hoakie*
Beioake	*Bihoakie*
Zoakez	*Zoazkie*
Zoakeze	*Zoazkiete*
Beioakez	*Bihoazkie*

Oharra

NORI = hiri denean NORI morfemaren aurretik jarri ohi da bizkaieraz, NOR-pluralgilea. Adibidez, "beioaZak" eta ez "beioakaZ".

AGINTE ERA.–*"NOR-NORI".*–EGON.

NOR		NORI		
		T		
H a		(Za) K/Na	(1)	
B e		KO		
	-GO	KU		
Z a		TZU	Z	
Z a		TZUE	Z	e
B e		KE	Z	

NOR		NORI		
		KIT		
H a		KIK/KIN		
B e		KIO		
	-GO	KIGU		
Z a		Z	KIZU	
Z a		Z	KIZUE	te
B e		Z	KIE	

NIRI

Hagot	*Hagokit*
Begot	*Begokit*
Zagodaz	*Zagozkit*
Zagodaze	*Zagozkidate*
Begodaz	*Begozkit*

HIRI

Begok	*Begokik*
Begona	*Begokin*
Begozak	*Begozkik*
Begozana	*Begozkin*

HARI

Hagoko	*Hagokio*
Begoko	*Begokio*
Zagokoz	*Zagozkio*
Zagokoze	*Zagozkiote*
Begokoz	*Begozkio*

GURI

Hagoku	*Hagokigu*
Begoku	*Begokigu*
Zagokuz	*Zagozkigu*
Zagokuze	*Zagozkigute*
Begokuz	*Begozkigu*

ZURI

Begotzu	*Begokizu*
Begotzuz	*Begozkizu*

ZUEI

Begotzue	*Begokizue*
Begotzuez	*Begozkizue*

HAIEI

Hagoke	*Hagokie*
Begoke	*Begokie*
Zagokez	*Zagozkie*
Zagokeze	*Zagozkiete*
Begokez	*Begozkie*

Oharra

NORI = hiri deneko NOR plurala NORI morfemaren aurretik jarri ohi da, eta atzetik beste pertsonetan egiten den bezala. Adibidez, haiek-hiri: begoZak, eta ez: begokaZ.

AGINTE ERA.–*"ZER-NORK".*–EKARRI, JAKIN.

zer = gauza bat				nork
E		(Za)	K/Na	
B e			-	
	-KAR			Z
E	-KI		ZU	
E			ZUE	
B e			E	

ZER = gauza bat			NORK
E			KIK/KIN
B e			-
	-KAR	TZA/ZKI	
E	-KI		ZU
E			ZUE
B e			TE

Nik		(Dakardan/Zan)	*Hik Ekark/Ekar itzak*
Hik	Ekark/Zak		Ekarna/Ekar itzan
	Ekarna/Zana		*Hark Bekar/Bekartza*
Hark	Bekar/Z		
Guk		(Dakargun/Zan)	*Zuk Ekarzu/ Ekar itzazu*
Zuk	Ekarzu/Z		*Zuek Ekarzue/ Ekar itzazue*
Zuek	Ekarzue/Z		*Haiek Bekarte/ Bekartzate*
Haiek	Bekarre/Z		

Nik		(Dakidan/Zan)	
Hik	Jaiki/Zak		*Hik Jakik/Jakitzak*
	Jakin/Zana		*Jakin/Jakitzan*
Hark	Beki/Z		*Hark Beki/Bekizki*
Guk		(Dakigun/Zan)	
Zuk	Jakizu/Z		*Zuk Jakizu/Jakitzazu*
Zuek	Jakizue/Z		*Zuek Jakizue/ Jakitzazue*
Haiek	*Bekie/Z*		*Haiek Bekite/Bekizkite*

Oharra

Bizkaierazko "DAKARDAN, DAKARGUN", "DAKIDAN, DAKIGUN" subjuntiboak izan arren aginte eran erabilten dira nohizpeinka. Horregaitik sartu ditut hemen.

Batuaz, pluralgileak: JAKIN aditzaren NORK = hirugarrena denean: -ZKI-; beste guztietan -TZA-.

AGINTE ERA.–*"ZER-NORI-NORK".*–EKARRI.

ZER		NORI	NORK
		st-T	
		a/K/Na	K/Na
		tso/O	-
B E	-KAR	*sku*/GU	Z
		tsu/ZU	ZU
		tsue/ZUE	ZUE
B E		*tse*/E	E

ZER		NORI	NORK
		KIT	
		KIK/N	K/N
B E		KIO	-
	-KAR Z	KIGU	
		KIZU	ZU
		KIZUE	ZUE
B E		KIE	TE

NIRI

Ekarda-k/Zak	*Ekardak/Zkidak*
Ekarda-na/Zana	*Ekardan/Zkidan*
Bekart/daZ	*Bekarkit*
Ekardazu/Z	*Ekardazu*
Ekardazue/Z	*Ekardazue*
Bekarde/Z	*Bekarkidate*

HIRI

Bekark/ ak	*Bekarkik/Zkik*
Bekarna/Zana	*Bekarkin*
Bekarre/Z	*Bekarkiate*
Bekarne/Z	*Bekarkinate*

HARI

Ekarkok/Zak	*Ekarriok*
Ekarkon/Zana	*Ekarkion*
Bekarko/Z	*Bekarkio*
Ekarkozu/Z	*Ekarriozu*
Ekarkozue/Z	*Ekarriozue*
Bekarkie/Z	*Bekarkiote*

GURI

Ekarkuk/Zak	*Ekarguk*
Ekarkun/Zana	*Ekargun*
Bekarku/Z	*Bekarkigu*
Ekarkuzu/Z	*Ekarguzu*
Ekarkuzue/Z	*Ekarguzue*
Bekarkue/Z	*Bekarkigute*

ZURI

Bekartzu/Z	*Bekarkizu*
Bekartzue/Z	*Bekarkizute*

ZUEI

Bekartzue/Z	*Bekarkizue*
Bekartzuee/Z	*Bekarktzuete*

HAIEI

Ekarkek/Zak	*Ekarriek*
Ekarken/Zana	*Ekarrien*
Bekarke/Z	*Bekarkie*
Ekarkezu/Z	*Ekarriezu*
Ekarkezue/Z	*Ekarriezue*
Bekarke/Z	*Bekarkiete*

Oharra

Adizkera hau oso gutxi darabilgu.

Badirudi bizkaierazko nori morfemak (*st, a/na, tso, sku, tsu, tsue, tse*) ez litzatekezala erabili behar adizkera honetan. Baina, "Ekartsozu" gehiago entzuten da "Ekarkozu" baino, eta antzera beste guztietan.

Elemento objetibo delakoa, ZER = BE (hirugarrenekoa), baina beti (B)E erabiltzen da NORK = hak, haiek izan ezik. Adibidez, ZUK-HARI-ZERBAITZUK (tráeselos) = ekartsozuz/ekarkozuz, eta ez, ostera, Bekartsozuz/Bekarrozuz.

ARIKETAK

1. *Egin AGINTE ERAKO esaldiak ondoren ematen diren datuez baliaturik.*

   – Itzi bertan / eskuarteko / zeregin / etorri guri / lagun / egin.
   – Begi / zabaldu / eta / ibili / azkar / eta / ekarri / ogiak.
   – Zu / oraintxe / joan / pikutara.
   – Mutilak / etorri / gurera / jaietan / egon gu / eta.
   – Nire /ondo / hi joan / oraintxe, gero.
   – Lagunek / erregalu / hiri ekarri / Paristik.
   – Baina / niri ekarri / Errioxatik / ardao gorri.
   – Betiko / bakean / gure nagusi / egon.
   – Egon /gu / zain /,/ egon / gu / erene / zer pasauko ere.
   – Aintzinako / ohitura zaharrak / gure / artera / etorri / barriro.
   – Joan / hemendik / hi / eta ez gehiago / etorri.
   – Peru / eta / Marixe / joan / Akerlandara / haize preskua / hartu.

2. *Ondorengo esaldiotako NOR/ZER eta NORK/ZERK guztiak aldatu egizuz: singularrekoak pluralera eta alderantziz.*

   – Zatoz hona, ume!
   – Ekarzu hori tabakorri pakete hori.
   – Hoakio hari lagun egitera!
   – Betorkigu zure erreinua.
   – Begozak guztiak hiri begira, ni ez, ostera!
   – Zagodaz/zagozkit adi, gauza bera ez dut bi aldiz esango eta!
   – Jakik egia, behin betiko!
   – Bekarrez ogiak zure lagunek.
   – Ekardazu liburu hori.
   – Bekarnez pitxiak, nik ez dizkinat/deunazat ekarriko eta.
   – Bekarkue/bekarkigute ardaoa!
   – Ekardazak/Ekarzkidak oinetakoak, Joxe!
   – Ekarriozu/ekarkozu aitari tabakoa, ume!
   – Bekarzue/bekarkizute Ameriketako iseko-osabek zeuk eskatutako gauzak!
   – Ekarkok/ekarriok aitari pipia, mutil.

AGINTE ERA: ADITZ LAGUNTZAILEA

AGINTE ERA.–*"NOR".*–

	(Naiten)	
Haite(Hadi)		*Hadi*
Beite (Bedi)		*Bedi / Biz*
	(Gaitezan)	*Zaitez*
Zaitez		*Zaitezte*
Zaiteze		*Bitez / Bira*
Beitez (Bediz)		

AGINTE ERA.–*"NOR-NORI".*–

NOR	NORI		
	KIT		
H a	KIK/KINa		
B e	KIO		
?	KIGU		
Z a	KIZU	Z	
Z a	KIZUE	Z	e
B e	KIE	Z	

NOR	NO		RI	
	KI		T	
H a	KI		K/N	
B e	KI		O	
?	KI		GU	
Z a	KI	ZKI	ZU	
Z a	KI	ZKI	ZUE	te
B e	KI	ZKI	E	

NIRI

Hakit	*Hakit*
Bekit	*Bekit*
Zakidaz	*Zakizkit*
Zakidaze	*Zakizkidate*
Bekidaz	*Bekizkit*

HIRI

Bekik	*Bekik*
Bekina	*Bekina*
Bekizak	*Bekizkik*
Bekinaz	*Bekizkina*

HARI

Hakio	*Hakio*
Bekio	*Bekio*
Zakioz	*Zakizkio*
Zakioze	*Zakizkiote*
Bekioz	*Bekizkio*

GURI

Hakigu	*Hakigu*
Bekigu	*Bekigu*
Zakiguz	*Zakizkigu*
Zakiguze	*Zakizkigute*
Bekiguz	*Bekizkigu*

ZURI

Bekizu	*Bekizu*
Bekizuz	*Bekizkizu*

ZUEI

Bekizue	*Bekizue*
Bekizkizue	*Bekizkizue*

HAIEI

Hakie	*Hakie*
Bekie	*Bekie*
Zakiez	*Zakizkie*
Zakieze	*Zakizkiete*
Bekiez	*Bekizkie*

Oharrak

– NAITEN eta GAITEZAN berenez subjuntibozkoak dira baina aginte kutsuaz erabilten dira, nohizpeinka.

– BIZ eta BIRA forma soilak dira, eta ez dira laguntzaile bezala hartu behar.

– Adizkera honetan errorik agertzen den ala ez eztabaidagarri litzateke. Horregaitik jarri dogu erroaren tokian. Dena den, beste era batera ere uler daiteke. Adibidez, "BEKIzkiZUEKE" baleiteke "BEKIZKIZUEKE" izatea.

AGINTE ERA: ORAIN ALDIA.–*"NOR-NORK".*–

NOR		NORK	
NA	GI		
	GI	K/N	
BE	GI	-	
GA	GI		Z
	GI	ZU	Z
	GI	ZUE	Z
BE	GI	E	Z

NOR			NORK
NA		ZA	
		ZA	K/N
BE		ZA	-
GA	it	ZA	ZU
	it	ZA	ZU
	it	ZA	ZUE
BE	it	ZA	TE

NI		HA	
Nagik	*Nazak*	Egik	*Ezak*
Nagin	*Nazan*	Egina	*Ezan*
Naizu	*Nazazu*	Begi	*Beza*
Naizue	*Nazazue*	Egizu	*Ezazu*
		Egizue	*Ezazue*
		Begie	*Bezate*

GU		HAIEK	
Gagizak	*Gaitzak*	Egizak	*Itzak*
Gagizana	*Gaitzana*	Egizana	*Itzana*
Gaizuz	*Gaitzazu*	Begiz	*Bitza*
Gaizuez	*Gaitzazue*	Egizuz	*Itzazu*
		Egizuez	*Itzazue*
		Begiez	*Bitzate*

Oharrak

Bizkaieraz, NORK = HIK denean 'ZER' pluralgilea ez da jarten atzean bizkaierazko legeari jarraituz, NORK hizkiaren aurretik baino. Adibidez: *Lleva estos libros a la biblioteca* = Liburuok eroan egizak liburutegira. Hau da, eroan egiZak eta ez egikaZ. Bardin emakumeari buruzkoetan, femeninoetan.

Berez, agindu, aurrean daukagunari bakarrik egiten deutsagu: Hiri, Zuri-Zuei, Eta beste pertsonei buruz ez da aginte era, gurarizko era baino. Adibidez: "Manuelek egin daiala hori", "Manuelek egin begi hori", etab. Bardin lenengo pertsonetakoa ere: "Natorren neure harira", dino hizlariak, baina hau ez da noreberen buruari agintzea, erabagi bat hartzea baino.

Bizkaieraz -GI- erroaren 'G' galdu egiten da gehienetan.

AGINTE ERA: ORAIN ALDIA.—*"ZER-NORI-NORK".*—

ZER		NORI	NORK	
		T-*st*		
E	GI	A/NA	K/N	Z
BE	GI	O- *tso*	-	Z
		GU-*sku*		
E	GI	ZU-*tsu*	ZU	Z
E	GI	ZUE-*tsue*	ZUE	Z
BE	GI	E-*tse*	E	Z

ZER			NORI	NORK
			T	
IE	ZA	ZKI	K/N	K/N
BIE	ZA	ZKI	O	-
			GU	
IE	ZA	ZKI	ZU	ZU
IE	ZA	ZKI	ZUE	ZUE
BIE	ZA	ZKI	E	TE

NIRI

Eida-k/Zak	*Ieza-dak/Ieza-ZKI-dak*
Eida-na/Zana	*Ieza-dan*
Beit/Beidaz	*Bieza-t*
Eidazu/Z	*Ieza-dazu*
Eidazue/Z	*Ieza-dazue*
Beide/Z (1)	*Bieza-date*

HIRI

Bei-k/Zak	*Bieza-k/Bieza-ZKI-k*
Bei-na/Zana	*Bieza-n*
Beie/Z	*Bieza-ate*
Beine/Z	*Bieza-nate*

GURI

Eigu-k/Zak	*Ieza-guk*
Eigu-na/Zana	*Ieza-gun*
Beigu/Z	*Bieza-gu*
Eiguzu/Z	*Ieza-guzu*
Eiguzue/Z	*Ieza-guzue*
Beigue/Z	*Bieza-gute*

ZURI

Beizu/Z	*Bieza-zu*
Beizue/Z	*Bieza-zute*

ZUEI

Beizue/Z	*Bieza-zue*
Beizuee/Z	*Bieza-zuete*

HARI

Eio-k/Zak	*Ieza-iok*
Eio-na/Zana	*Ieza-zion*
Beio/Z	*Bieza-io*
Eiozu/Z	*Ieza-iozu*
Eizozue/Z	*Ieza-iozue*
Beioe/Z	*Bieza-iote*

HAIEI

Eie-k/Zak	*Ieza-iek*
Eie-na/Zana	*Ieza-ien*
Beie/Z	*Bieza-ie*
Eiezu/Z	*Ieza-iezu*
Eiezue/Z	*Ieza-iezue*
Beie(e)/Z	*Bieza-iete*

Oharrak

(1) Goiko eskeman —bizkaierazkoan— gaur egun Bizkaian bakarrik entzuten diren NORI hizkiak sartu ditut: niri = *st;* hari = *tso;* guri = *tsu;* zuei = *tsue* hari = *tse. Badirudi egite eratik kanpo ez litzatekezela erabili behar horrela osotutako formak: beist,* bei*sku,* bei*tsu,* bei*tsue,* ei*st*azu, ei*tso*zue, etab.

Gaurko adizkera honeek Bizkai guztian ez dira erabilten, eta ez dauke literaturan ezelako tradiziorik. Besteak egokiagoak dira, eta erabilgarriago, beraz.

ARIKETAK

1. *Ondorengo esaldiotan bete hutsunak egoki den "aginte erako" aditza jarriaz.*

— Zeure lana amitu ondoren lagun_____neri, estu eta larri nabil eta.
— Egon_____geldi, ume!
— Joan_____(zuek) amamenera.
— Jesarri_____gizonak, oraindik prisarik ez daukagu eta.
— Inor ez_____hemetik mobidu, gero!
— Urreratu_____irakasleari zeure ondotik pasatzerakoan.
— Zoaz eta aurkeztu_____Alkate Jaunari.
— Eh, Taxi, eroan_____(zuk ni) Artxandara!
— Entzun_____(gu/guri zuk) Jauna!
— Kepa, eroan_____pakete hau Udaletxera.
— Har(tu), ume, karamelook biderako.
— Eroan_____ogibitarteko bat (zuek) arratsalderako.
— Hi, Patxi, eroan_____gu gere, heure kotxean S. Mamesera.
— Kepak eta Mireneak ekar(ri)_____hemen behar ditugun gauzak.
— Zeure kapazidade guztiak jar(ri)_____lanean.
— Euskalerrian bizitzekotan ikas(i)_____euskaraz (zuk).
— Ikas(si)_____euskeraz, eta izan_____euskaldunak.
— Ez_____(guk) euskara baztertu!
— Jan ase arte eta ez_____beti (zuek) gosez ibili.
— Maite_____(guk) herria.
— Kanta_____danok: hauxe da egun alaia!
— Zabaldu_____begiok, mutil, lotan hago eta.
— Olentzerok urte berri zorintsu bat_____(ekarri zuei).
— Mesedez, Bilbora eroan_____(zuk) nire alabatxoa, eta maletak ere eroan_____(hari zuk).
— Hori disparate hori zeuok esan_____irakasleari!
— Zapaltzaileok, emon_____guri geure buruen jabetasuna.

2. *Ondorengo esaldiotan aditz soilak aginte erako aditz parifrastikoz trukatu egizuz.*

— Zoaze hemendik, bizkor!
— Datozela berehala!
— Zabiltzate argi, bestela akabo!
— Bego ixilik ume hori.
— Betorkizuz lagunak zuri laguntzera!
— Beioaz gure artetik lotsabakuok, halakuok!
— Ez egon hor ume, otzitu egingo zara ta.
— Itzartu, Josetxo, itzartu ordua da eta.
— Jezarri hortxe, eta egon geldi!
— Goazen hemendik.
— Kendu nire ondotik, zantar hori!
— Ez arritu mutilak, ez arritu!
— Natorren harira, dino hizlariak!
— Gorde hortxe ate ostean, Idoia, zure bila datoz eta.

3. *Ondorengo erdal esaldiok euskeratu egizuz.*

— Quítate de ahí delante.
— Acércate a tu padre y pídele permiso.
— Cuando entréis en clase sentaos enseguida y callad.
— No entres en casa hasta que lleguen los demás.
— Vete ahora mismo, será lo mejor.
— Llévame a Bilbao, por favor.

– Llevadlo de aquí.
– Haz lo que quieras.
– Trae vino y nueces.
– Llevadnos con vosotros hasta Burgos.
– Que se lo quede para él.
– Llevad estos niños a la cama cuanto antes.
– Tráele un paquete de DUCADOS a tu padre.
– Tráeme la merienda y de paso tráenos los paraguas.
– Sacadnos las entradas del cine.
– Llévalo a otra parte.
– Lléveselos cuanto antes.
– Taxi, Taxi! Llévenos a la plaza de la Opera, por favor.
– No nos cuentes mentiras: no nos las creemos.

ADITZ DEFEKTIBO ETA IRREGULARRAK

EGITE ERA: ORAIN ALDIA.–*"ZER-NORI-NORK".*–ERITXI/ERITZI. Opinar (NORI = HARI/HAIEI); llamarse.

ZER		NORI	NORK
		T	T
		A/Na	K/N
		O/A	-
De	-RITXI	GU	GU
		ZU	ZU
		ZUE	ZUE
		E	tE

HARI	HAIEI	HARI	HAIEI
Deritxat	Deritxet	*Deritzat*	*Deritzet (Deriztet)*
Deritxak/na	Deritxek/na	*Deritzak/n*	*Deritzek/n (Deriztek)*
Deritxo	Deritxe	*Deritzo*	*Deritze (Derizte)*
Deritxagu	Deritxegu	*Deritzogu*	*Deritzegu (Deriztegu)*
Deritxazu	Deritxezu	*Deritzozu*	*Deritzezu (Deriztezu)*
Deritxazue	Deritxezue	*Deritzozue*	*Deritzezue (Deriztezue)*
Deritxe	Deritxie	*Deritzote*	*Deritzete (Derizte)*

Adibidez

"Zer deritxazu nire lanari?"
"Txakur honi Zoli deritxo"

Oharra

Gaur egun, "llamarse" esanahiaz hirugarren pertsonatik kanpo ez da erabilten; adibidez, "Hark zuri Pepe deritzu".

EGITE ERA: IRAGANA.–*"NORK-NORI-ZER".*–ERITXI/ERITZI.

NORK		NORI	ZER
N e		T	
H e		K/N	
(Z)e		OA	
G e (ne)	-RITXI	GU	N
Z e (ne)		ZU	
Z e (ne)		ZUE t-e	
(Z)e		E t-e	

Oharra

ZER = singularra beti.
NORI = HARI/HAIEI ia gehienetan.

HARI	HAIEI	HARI	HAIEI
Neritxan	Neritxen	*Neritzon*	*Neritzen (nerizten)*
Heritxan	Heritxen	*Heritzon*	*Heritzen (herizten)*
Eritxon	Eritxen	*Zeritzon*	*Zeritzen (zerizten)*
Geritxan	Geritxen	*Generitzon*	*Generitzen (generizten)*
Zeritxan	Zeritxen	*Zeneritzon*	*Zeneritzen (zenerizten)*
Zeritxen	Zeritxien	*Zeneritzoten*	*Zeneritzaten (zeneriztaten)*
Eritxen	Eritxien	*Zeritzoten*	*Zeritzeten (zerizteten)*

Adibidez

"Zure aitak ondo eritxon gure asmoari".

EGITE ERA: ORAIN ALDIA.—*"NOR-NORI".*—* ERION/* JARION. Erderazko: manar, destilar, gotear...

NOR = ha/haiek		NORI		
-			T	
-			K/Na	
D a			O	
-	-RI		GU	
-			ZU	
-			ZUE	
D a		Z- ki	E	Z

Oharra

NORI = HARI gehienetan.
NOR = HA ia beti. Inoiz baita NOR = HAIEK ere.

HA	HAIEK	HA	HAIEK
Darit	Daridaz	*Darit*	*Darizkit*
Darik/n	Darizak/naZ	*Darik/n*	*Darizkik/n*
DARIO	Darioz	*Dario*	*Darizkio*
Darigu	Dariguz	*Darigu*	*Darizkigu*
Darizue	Darizuez	*Darizue*	*Darizkizue*
DARIE	Dariez	*Darie*	*Darizkie*

Oharra

NOR = HA/HAIEK eta NORI = HARI/HAIEI adizkiak erabili ohi dira.

EGITE ERA: IRAGANA.—*"NOR-NORI".*—ERION/* JARION.

ZER			NORI	
-			T	
-			A/Na	
Z e			O	
-	-RI		GU	N
-			ZU	
-			ZUE	
Z e		Z- ki	E	Z

HA	HAIEK	HA	HAIEK
-	-	*Zeridan*	*Zerizkidan*
-	-	*Zerian/nan*	*Zerizkian/nan*
Erion	Eriozan	*Zerion*	*Zerizkion*
-	-	*Zerigun*	*Zerizkigun*
-	-	*Zerizun*	*Zerizkizun*
-	-	*Zerizuen*	*Zerizkizuen*
Erien	Eriezan	*Zerien*	*Zerizkien*

Oharra

NOR eta NORI, biak hirugarrenekoak direneko adizkera litzateke gaur erabiltzen den bakarra.

EGITE ERA: ORAIN ALDIA.–*"ZER-NORK".* IRUDI.–Erderazko: Parecer, asemejar...

ZER/ha	NORK
	T
	K/N
D = ha	-
-IRUDI	GU
	ZU
	ZUE
	t E

Dirudit	*Dirudit*
Dirudik/n	*Dirudik/n*
Dirudi	*Dirudi*
Dirudigu	*Dirudigu*
Dirudizu	*Dirudizu*
Dirudizue	*Dirudizue*
Dirudie	*Dirudite*

Adibidez

–"Zer dirudizu, Peru? Zer dirudizu?"
–"Kitterrie, Marixe, kitterrie".

EGITE ERA: IRAGANA.–*"NORK-ZER".*–IRUDI.

NORK	ZER		
N			
H			
Z			
G (en)	-IRUDI		aN
Z (en)			
Z (en)		t e	
Z		t e	

Oharra

Bizkaieraz NORK = HAREK denekoa da erabiliena.

Nirudian	*Nirudien*
Hirudian	*Hirudien*
(Z)Irudian	*Zirudien*
Girudian	*Genirudien*
Zirudian	*Zenirudien*
Zirudien	*Zeniruditen*
(Z)Irudien	*Ziruditen*

EGITE ERA: ORAIN ALDIA.–*"ZER-NORK".* IRAUN. Erderazko: durar, continuar...

ZER	NORK
	T
	K/Na
D	-
-IRAU	GU
	ZU
	ZUE
	t E

Oharra

ZER/NOR = HA beti: zerbait.

Diraut	*Diraut*
Dirauk/na	*Dirauk/na*
DIRAU	*Dirau*
Diraugu	*Diraugu*
Dirauzu	*Dirauzu*
Dirauzue	*Dirauzue*
DIRAUE	*Diraute*

Adibidez

"Zure aitak lanean dirau oraindik".
"Gorrotoak eta ikusi-ezinak ba diraue gure artean oraindik..."

EGITE ERA: IRAGANA.–*"NORK-ZER".*–IRAUN.

NORK		ZER	
N			
H			
Z			
G (en)	-IRAU		N
Z (en)			
Z (en)		te	
Z		te	

Oharra

Bizkaieraz, behintzat, hirugarren pertsonakoa bakarrik erabili ohi da.

-	*Nirauen*
-	*Hirauen*
Zirauan	*Zirauen*
-	*Genirauen*
-	*Zenirauen*
-	*Zenirauetten*
Zirauen	*Zirauten*

Adibidez

"Gure gurasoen denporan berbeak berba zirauan beti..."

EGITE ERA: ORAIN ALDIA.–*"ZER-NORK".*–JARDUN/IHARDUN.

ZER		NORK
		T
		K/N
D		-
	-IHARDU	GU
		ZU
		ZUE
		t E

Oharra

Aditz honek beti INESIBOA eskatzen dau. Bere osagarria ZERTAN kasuan jarri behar da.

Dihardut	*Dihardut*
Diharduk/n	*Diharduk/n*
Dihardu	*Dihardu*
Dihardugu	*Dihardugu*
Diharduzu	*Diharduzu*
Diharduzue	*Diharduzue*
Dihardue	*Dihardute*

Adibidez

"Zertan diharduzue hor, baztarrean?"
"Ixileko kontutxoak kontetan dihardugu".

EGITE ERA: IRAGANA.–*"NORK-ZER".*–JARDUN/IHARDUN.

NORK		ZER	
N			
H			
Z			
G in,en	-IHARDU		a,eN
Z in,en			
Z in,en		t e	
Z		t e	

Niharduan	*Niharduen*
Hiarduan	*Hiarduen*
Ziarduan	*Ziharduen*
Ginarduan	*Geniharduen*
Zinarduan	*Zeniharduen*
Zinarduen	*Zeniharduten*
Ziarduen	*Ziharduten*

Oharra

Kontuan hartu, aditz hau besteokin hartu-emonetan jartzekoa dela: IBILI, ARITU/ARI IZAN, eta batzuetan EGON aditzarekin ere bai.

EGITE ERA: ORAIN ALDIA.—*"ZER-NORI-NORK".*—ERAGON. Erderazko: ocuparse en... JARDUN-en antzeko.

ZER = ha	NORI = hari	NORK
D a -RAGO	*io*	T K/N - GU ZU ZUE E

Oharra

NORI = HARI. Beti gauza bati buruzko ekintza adierazten da.

Daragoiot
Daragoiok/n
Daragoio
Daragoiogu
Daragoiozu
Daragoiozue
Daragoie

EGITE ERA: ORAIN ALDIA.—*"NORK-NORI-ZER".*—ERAGON.

NORK	Nori = hari	ZER
N e H e e G e -RAGO Z e Z e e	*i*O	N e e

-Neragoion
-Heragoion
ERAGOION
-Geragoion
-Zeragoion
-Zeragoien
ERAGOIEN

Oharra

Adizkera hau Bizkaiko eskualde baten —Orozko aldean— bakarrik bizi da. Baina, Txorierrian ere "murmurar" esanahiaz erabili ohi da.
NORK = HA/HAIEK denekoa da gehien erabilten dena.

EGITE ERA: EUTSI. Estar contigua una cosa a otra.

-	-
-	-
Deutsa(la)	Eutsa(n)-la
-	-
-	-
-	-
Deutsie(la)	Eutsie(n)-la

Adibidez

—Garajea etxeari dautsala egin dogu.
—Zuen soloak gureei dautsiela dagoz.
—Iturria eskoleari eutsala egoten zan.
—Giltzari deutsala ikusi dot. (Le he visto asiéndose de la llave)
Azkue, Morfología, pág. 701, E.

AGINTE ERA: EUTSI. Agárralo, Ten, Tómalos...

(H)Autso(k)	(H)Autsozak
(H)Autsona	(H)Autsozana
Beutso	(Beutsoz)
Eutsi	Eutsiz
Eutsie	Eutsiez
(Beutse)	(Beutsez)

Adibidez

—"Autso, Txordon, artz orri ta nik iñez daida". (Sujeta, Ordoño, a ese oso y yo haré huida. Refranes y Sentencias, n.º 422).

—"Autso, txakurra eta ixilik egon hadi".

—"Eutsiz honek papelok eta gorde eizuz ondo".

Oharrak

Eutsi/Z; eta Eutsie/Z egiazko aginte erak baino beste erabilpide bateko itxura gehiago dauke. Etorri hona! Egon hor! eta holako erabilpidetik letorke, plural morfema eta zuek-eri dagokion -e morfema gehituta.

Beste sasi-agintera -Azkuek: "imperativo barato", o.c. 701. orr. batzuk ere badarabilguz egunero ahotan: Eutsiok/Eutsion; Eutsiek/Eutsien. Eutsiozu/Eutsiezu; Eutsiozue/Eutsiezue. Erabilpide honetan, erderazko SUJETARLE esanahia eukiko leuke.

EGITE ERA: ORAIN ALDIA.–*"NOR-NORI".*–ATXEKI/ATXIKI. Erderazko: Adherir...

NOR		NORI	
N a		T	
H a		K/N	
D a		O	
G a	-TXE Z- ki	GU	
Z a	Z- ki	ZU	
Z e	Z- ki	ZUE	te
D a	Z- ki	E	

Oharra

Pertsona guztiak dituenarren NOR = HA/HAIEK erabiltzen da gehien.

NIRI

Hatxekit
Datxekit
Zatxezkit
Zatxezkidate
Datxezkit

GURI

Hatxekigu
Datxekigu
Zatxezkigu
Zatxezkigute
Datxezkigu

ZURI

Natxekizu
Datxekizu
Gatxezkizu
Datxezkizu

HIRI

Natxekit/n
Datxekik/n
Gatxezkik/n
Datxezkik/n

ZUEI

Natxekizue
Datxekizue
Gatxezkizue
Datxezkizue

HARI

Natxekio
Hatxekio
Datxekio
Gatxezkio
Zatxezkio
Zatxezkiote
Datxezkio

HAIEI

Natxekie
Hatxekie
Datxekie
Gatxezkie
Zatxezkie
Zatxezkiete
Datxezkie

Oharra

"ATXEKI" aditz hau bizkaierazko "EUTSI" aditzarekin hartu emonetan jarri behar litzateke. Bien esanahia antzerakoa da eta. Adibidez: "Etche horri datchizkola baziren bi eritegi": Touchant cette maison, il y avait deux hôpitaux. Ikusi P. Lafitte, GRAMMAIRE BASQUE, 270. orr. n.º 548.

Gramatika honek ATCHIKI aditzari esanahi bi damotsoz: *attenant à,* eta *attaché à* bestea.

EGITE ERA: ORAIN ALDIA.—*"ZER-NORI-NORK".*—*ERAUTSI/*IRAUTSI. (replicar, reponer...)

ZER		NORI	NORK	
		ST	T	
		A/Na	K/Na	
		TSA	-	
D	-IRAU	SKU	GU	Z
		TSU	ZU	
		TSUE	ZUE	
		TSE	E	

NIRI
Diraustak/Zak
Diraustana/Zana
Diraust/aZ
Diraustazu/Z
Diraustazue/Z
Dirauste/Z

GURI
Dirauskuk/Zak
Dirauskun/Zana
Dirausku/Z
Dirauskuzu/Z
Dirauskuze/Z
Dirauskue/Z

HIRI
Dirauat/aZat
Diraunat/Zanat
Diraua/Z
Dirauna/Z
Dirauagu/Z
Diraunagu/Z
Diraue/Z
Diraune/Z

ZURI
Dirautsut/daZ
Dirautsu/Z
Dirautsugu/Z
Dirautsue/Z

HARI
Dirautsat/daZ
Dirautsak/Zak
Dirautsana/Zana
Dirautso/Z
Dirautsagu/Z
Dirautsazu/Z
Dirautsazue/Z
Dirautse/Z

ZUEI
Dirautsuet/daZ
Dirautsue/Z
Dirautsuegu/Z
Dirautsuee/Z

HAIEI
Dirautset/daZ
Dirautsek/Zak
Dirautsen/Zana
Dirautse/Z
Dirautsegu/Z
Dirautsezu/Z
Dirautsezue/Z
Dirautsie/Z

EGITE ERA: IRAGANA.—*"NORK-NORI-ZER".*—*ERAUTSI/*IRAUTSI.

NORK		NORI	ZER	
-		ST		
-		A/Na		
Z		TSA		
-	-IRAU	SKU	Z	N
-		TSU		
-		TSUE	e	
Z		TSE		

NIRI

Ziraustan/Zan
Zirausten/Zan

GURI

Zirauskun/Zan
Zirauskuen/Zan

HIRI

Zirauan/aZan
Ziraunan/Nazan

ZURI

Zirautsun/Zan
Zirautsuen/Zan

HARI

Zirautsan/Zan
Zirautsen/Zan

ZUEI

Zirautsuen/Zan
Zirautsueen/Zan

HAIEI

Zirautsen/Zan
Zirautsien/Zan

ARIKETAK

1. *Ondorengo erdal esaldiok euskeratu egizuz.*

— ¿Qué te parece lo que dijo Pedro el otro día?
— Me parece que hoy no vendrán.
— ¡Pareces tonto, hombre, cállate!
— Esto parece algo bueno, pero a veces las apariencias engañan.
— Al principio me parecía bien, pero luego cambié de idea.
— ¿Qué te pareció la obra que representaron anoche?
— Les parece bien que vayamos todos el domingo a su casa: nos prepararán la comida.
— Llevaba el vaso lleno y cayéndosele el líquido.
— Al sabio le brotan palabras de sabiduría, y al idiota estupideces.
— ¿Qué parecen esos montones de piedras?
— Sí, yo parecía un zapatero, pero tú parecías un idiota.
— Yo no salgo mientras dure la tormenta.
— Hay que trabajar, que el dinero no dura siempre.
— Mientras vosotros continuáis trabajando, yo voy a vigilar al niño.
— Después de varias horas todavía continuaban jugando a cartas.
— ¿Qué andas haciendo ahí?
— Pues nada, aquí ando, trabajando un poco, abriendo esta zanja.
— ¿Qué están haciendo los niños? — Están jugando, y todavía creo que continuarán haciéndolo un buen rato.
— Hemos construido el garaje contiguo a la casa.
— Toma, Canelo (Canelo = txakurra), este hueso y ¡cállate!

2. *Ondorengo aditz bakoitzaz baliaturik esaldi bat egin.*

